



uk

92. zenbakia / 2005 abenduak 31

10 1995/2005
urte zuekin

Hau da Euskararen Etxea



Euskararen Etxea bat baino gehiago da, uin ere, esko diru. Zeure etxea da, baita ere aguraren-egunaren gure hizkuntza errepertorio, erabil, ikasi edo zabalitzen duen pertsona ororen.



euskararen
e t x e a

Agoitz plaza 1. San Inazio auzoa.
Bilbao. Tel.: 94.405.23.83
www.euskararenetxea.net



Bizkaiko Foru
Aldundia
Diputación Foral
de Bizkaia



Ongi etorri zure etxera

UK 10 urte Xabier Paia

Inprenta batek inoiz sortua
erdi magazin-armarri,
Getxoko letren ezlarri,
mila argazki egina hainbat
muxugorri zein bizarri:
Gu geu, Talaia, Erretratua,
Aitormenak, Herriz Herri...
Denetarik eta sarri,
geure etxetik atara barik
Uribe Kostako barri!

Pelukeria artazi eta
orrazien lastanean,
sekadoraren mendean,
lanera joaten bus zein metroan,
etzanda sofa gainean,
lotara joan aurretik edo
Rocarekin komunean...
Eroan eizu aldean,
zer irakurri izan dagizun
zeuk gura dozun unean!

Azau gelditzen dira denboran
lehen alearen debuta,
garai zaharren burruka...
Irakurleen tropelak ere
erreklutaz errekluta
upel beteko begi zorrotzez
etorkizun ona dauka.
Hamarkada bete UKa,
egindakoa gustatu zein ez,
meritua ezin uka,
Beto beste hamar, aupa!

«Begiak noraino, nahia haraino» Euskal esaera zaharra

Non zer

- GU GEU.
- ERRETRATUA. Bittor Egurrola. Asier Mentxaka.
- PLAZA. Leihatila, Maddi Albizu. Jokin Aspuru. Photoshop.
- LEHEN ETA ORAIN. Algorta, 1890-2005.
- TALAI. Beste begirada bat UKri.
- HERRIZ HERRI. Getxo 10. Leioa 20. Erandio 24. Berango 28.
Sopelana 32. Gainerako herriak 36.

SAKONEAN

- FOTOGRAFIA. UKn argitaratutako onena.
- BERBETAN. Gurean esandakoak.
- AKABUKO PUNTE. Gure euskere.
- IRAKURLEAK. UKren irakurlerik fidelenak.
- PUBLIZITATEA. Gure iragarlerik onenak.
- IRITZIAK. Eta agurrak.


AMAITZEKO

- HOROSKOPOA.
- KOMIKIA. Dogan Gozel.
- JAN ETA EDAN. Gaizka Escudoren errezeta eta Itsaso Arana.
- FLASH BACK. Zabala eskolak, 1934.
- LANTALDEA. UKko artaldea, 2005.

Azaleko argazkia: Asier Mentxaka



10 Berriak



5 Bittor Egurrola

10 urte laburrean

Bai Bizarra Lepoan eta bai UK
zaharrei hautsa kendu eta azken
hamar urteotan argitaratu ditugun
berrien laburpena egin dugu.



54 Akabuko punte



34 Fotografia



66 Pipi eta Itsaso



58 Gure iragarleak

UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILEA: Boluntzarreta

HELBIBIDEA: Amezi 6, 4. solairua, 5. bulegoa 48991 GETXO
e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kuba 171
Tel: 94 491 13 37

ZUZENDARIA: Jokin Aspuru

ERREDAKZIOA: Irantzu Sagaminaga, Aritz Bregel

FOTOGRAFIA: Asier Mentxaka

TESTUEN ORRAZKETA: Jon Etxebarria

KOLABORATZAILEAK: Unai Brea, Bittor Egurrola, Xabier Bilbao, Oskar Fernández, Unai Amezaga, Esti Ezkerra, Itxaso Arana, Gaizka Escudero, Ainhoa Lores, Amaia Arriaga, Berbots Erandion Euskaraz eta Bizarra Lepoan Euskara Elkartea.

MARRAZKILARIAK: Dogan Gozel, Gorka Vázquez

PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Zuriñe Martínez (94 491 13 37)

KANPO HARREMANAK: Gorka Orueta

FILMAZIOA: Argia / INPRIMATEGIA: GESTINGRAF

LEGE GORDAILUA: BI-1878-00

ISSN: 1576-6799

Osorik edo zatiz, makinaz zein informatikaz kopiazea, baimen barik, erabat galarazirik dago

© Boluntzarreta

Aldizkari hau Euskal Herriko herri aldizkari eta euskara elkarteen Topaguneko partaide da



Aldizkari honek Bizarra Lepoan Euskara Elkartearen dirulaguntza jasotzen du

Itxasgane Etxea / Karitatea 1
94 491 43 57 / 48990 Algorta



BIZARRA



Aldizkari honek Getxoko Udalaren dirulaguntza jaso du



Getxo



Leioako Udala

Aldizkari honek Leioako Udaleko Euskara Zerbitzuko dirulaguntza jaso du



Aldizkari honek Berangoko Udalaren dirulaguntza jaso du



Erandioko Udala

Aldizkari honek Erandioko Udalaren dirulaguntza jasotzen du



Aldizkari honek Erandioko Berbots Euskaraz elkartearen laguntza jasotzen du



Aldizkari honek Goizero Udalaren dirulaguntza jasotzen du



Aldizkari honek Sopelarnako Udalaren laguntza jasotzen du



Bizkaiko Foru Aldundia

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren dirulaguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sarearen dirulaguntza jaso du



EROSKI FUNDAZIOA



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sarearen dirulaguntza jaso du



uk

94 491 13 37
uk@aldizkaria.biz



gugeu

1995/2005

Hamar urte dira euskarazko aldizkari bat egiten hasi ginela. Gauza jakina denez, Getxorako baino ez zen Bizarra Lepoan argitaratzen hasi ginen eta, gero, aldizkaria eskualde osora zabaldu genuenean, UK izena hartu zuen agerkari honek. Konturatu barik eta ziztu bizian, dagoeneko hamar urte igaro dira eta azalean ikus dezakezuen moduan, bizarrak ere urdintzen hasi zaizkigu batzui.

Berez apirila aldean bete genituen hamar urte, baina efemeridea ospatzeko urtea amaitu arte itxarotea erabaki genuen. Gure ibilbidearen laburpen moduko bat egiten ahalegindu gara ale berezi honetan eta, zinez, uste baino askoz ere buruko min handiago eman digu zeregin honek. Izan ere, 127 aldizkari (Bizarra Lepoan eta UK) plazaratu ditugu orain arte; milaka argazki, elkarriketa, berri... Ezinezkoa zen hori guztia 72 orrialdetan laburbiltzea eta ezinbestean gauza asko kanpoan lotu dira.

Halabeharrez eskerrak eman behar dizkiegu aldizkari hau orain arte posible egin duten lagun eta erakunde guztiei. Batez ere lantaldean urte hauetan parte hartu duten lagunei, diruz laguntzen diguzuen irakurleei, publizitatea aldizkari honetan txertatu duten merkatariei, eta azkenik, aldizkari hau diruz lagundu duten erakundeei: eskualdeko udalei, Bizkaiko Foru Aldundiari eta Eusko Jaurlaritzari. Guztioi eskerrik asko.

Hementxe doatzue gure jarduera luzearen sintesi saiakera hau. Ea gustatzen zaizuen.

A! Urte barri on! 4

UK-ko lantaldea

irakurleak

Zuon iritziak, eskaerak, proposamenak... garrantzitsuak dira guretzat. Harremanetarako: uk@aldizkaria.biz • Tel.: 94 491 13 37

matematika aplikatua



Goizero irakurri > berria



Aldizkari hau sortu zenetik gaur egun arte iraun duen kolaboratzaile bakarra da Bittor

Bittor Egurrola > gure aitabitxia

Bittor Egurrola -Don Vito, UK-ko kideontzat- 61 urteko gernikarra da. *“Edo algortarra beharbada, ez nago seguru, bizitza erdia daroat hemen”*. Euskara irakasten du Getxo I institutuan, eta ikasturte hau amaituta hartu behar du erretiroa. Ez UKri dagokionez, espero dezagun. Bizarra Lepoanen sorreran, han zebilen gure Bittor, beti bezain langile eta alai. 0 zenbakiko lanak banatzeko garaian, *“nork edo nork proposatuta edo beharbada nik neuk esanda, auskalo”*, ‘Atzera begira’ izeneko atala hartu zuen beretzat. Gerora horri eutsi zion behin ere huts egin barik, UK hamabostekari bihurtu zen arte. Ordurako, atalak bazeukan gaurko izena: Flashback. *“Hamabost egunean behin egitea gehiegi zen niretzat, benz tratua egin nuen erredakzioagaz, aurrenantzean txandaka egiteko. Onain, bitik bat egiten dut; nik ‘hilabetekari’ segitzen dut benz”*. Beharra emoten dio Flashback egiteak, baina normalean buruhauste barik betetzen du. Batzuetan suertea lagun du gainera: *“Inoiz norbaitek erretratu bat ekartzen dit, bertakoen izen eta guzti. Onain gixi taberna bateko horman topatu nuen halako pagotxa bat, hana”*. Baina jeneralean bera ibili behar izaten da jendeari deika, erretratu zaharren azpiko istorioak azaleratzen. Lana eskuz ekartzen du erredakziora, e-mail garai hauetan, eta beraren bisitak gertakizun soziala dira UKn. Halakoa dugu Don Vito, gure aitabitxia. Marlon Brandok antzestu zuen pertsonaje ankerragaz zerikusirik ez, baina. Bihotz handi onbera, horixe da Bittor. On Bittor. m Argazkia: **Asier Mentxaka** / Testua: **Unai Brea**

Leihatila

> Maddi Albizu

Numantziuka

Kristo aurreko 134. urtean erromatarrek zortzi hilabeteko setioa ezarri zioten Numantzia hiri zeltiberikoari. Azkenean, Numantziak amore ematea beste aukerarik ez zuen izan, nahiz eta numantziar askok eta askok, hiria erromatarrei eman baino lehen, beren buruaz beste egitea erabaki zuten. UK aldizkariak hamar urte bete dituen honetan, sarri, sarriegi, aldizkariak egindako bide oparoari begiratu eta, nahi gabe, Numantzia datorkit burura. Denok dakigu kalitate handiko honelako aldizkari baten gaztelerazko bertsioak arrakasta itzela izango lukeela gurean. Numantziarrek ere ondotox zekiten, goiz ala berandu, erromatarren esku geratuko zela euren bizia, hala ere, erresistentziari eutsi egin zioten. Txikiari beti egokitu zaio handiaren aurrean erresistentea izatea, eta hala izango da beti. Eta txikiak, biziraungo badu, zirkitu guztiak bilatu behar ditu, modu sortzailea batean. Horixe izan da, hain zuzen ere, UK aldizkariak, azken hamar urteetan hain ondo egin duena. 4

IRITZIA

Aldizkari honen sorreratik dabil Jokin Aspuru UKn. Bere zergatiak azaldu dizkigu azpiko gogoetan.

Aitormena
Martin Aspuru gogoan

Inork zerua merezi badu horixe nire psikoanalista da. Aspaldian neukan psikoterapia egiteko gogo, baina aditu euskalduna nahi nuen nik, ni ondo ulertzeko halabeharrezkoa neritzon baldintza hura, azken batean, mundua euskaraz bizi dut. Bilbo hiri erdaldunean lekeitiar zerutiar bat topatu nuen akabuan orain dela hiruzpalau urte eta harrezkero, astero nire bizipozak eta bizi-penak entzun behar izaten ditu gizajoak. Horietako asko, aldizkari hau egiten hamar urte eman ditudan heinean, UKri buruzkoak izaten dira.

Oraina ulertzeko erregrezio ariketak egiten ditugu bera eta biok sarritan. Aldizkari honek hamar urte bete dituela eta ni izan nintzela sortzaileetako bat eta lemari eusten segitzen nuela kontatu nion azkeneko sesioan eta horren gainean aritu ginen. Ni hasi nintzen: *“Orain hamar urte euskarazko herri aldizkarien booma puri-purian zegoenean, Getxok halako bat behar zuela erabaki eta Bizarna Lepoan adizkaria sortu genuen herriko*

euskaltzale batzuk. Euskararekiko maitasunak bultzatzen gintuen...” Ohi bezala, atzerago begiratzen ahalegintzeko eskatu zidan psikoanalistak. Familia, haurtzaroa eta halako gaiak atera ziren, eta ezinbestean, aita. Zoritxarrez oso gazte nintzela, artean 20 urte edukiko nituen, galdu nuen aita. 80ko hamarkadaren bukaera zen eta garaiarekin bat etorritz, errebelde hutsa nintzen: antinuklearra, antisistema, intsumisoa... eta jakina, antipatriarkala. Aurrez-aurreko biziak eduki

«Ikurrinarik ez daukagu etxe honetan»

genituen aitag eta biok. Norgehiagoka horretan geundela hil zen bera. Kontua da denbora igaro ahala, bera ezagutu zutenek beraren iguala naizela gogorarazten didatela beti: isila, ibilkera bera dugula...

Atzera begirako honetan, aldizkari hau zergatik sortu nuen eta bertan horrenbeste urte zergatik eman ditudan ere galdetu diot nire buruari. Nondik datorkidan hizkuntz honenganako maitasuna, gorrotoa, fidelasuna. Eta pasadizo bat gogoratu dut. Haurra nintzela, aberri egun batean, ikastolako nire klasekide gehienak ez bezala, etxeko balkoian ikurrinarik eskegitzen ez genuela aurpegiratu nion aitari. *“Ikurrinarik ez daukagu etxe honetan. Euskaldunak gana baina gure aberria ez da zapi hori”* erantzun zidan berak hunkinuta. Esku bat bihotzean eta bestea ahoan ipini eta gero *“euskara, gure hizkuntza, da gure aberria, munduan egoteko eta mundua ulertzeko modua”* esan zidan aitag. Egia handi eta, niretzat, berri hark behin betiko markatu ninduen.

Eta horregatik lankideekin batera, egiten dut UK. 4

Jokin Aspuru Zuazo
(UK-ko zuzendaria)



EUSKAL MUSEOA, BILBO



ASIER MENTAKA

photoshop > agerraldia



Irudiak eta manipulazioak: A. M.

Iraganez doa denbora* beti / ALGORTA 1890-2005

* **Denbora:** gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

uk > aldizkaria eta gehiago

Hamar urte hauetan gure zeregin garrantzitsuena aldizkaria plazaratzea izan da. Ipurterreak gara nonbait, honekin ez ginen hasetzen eta bestelako ekimenak ere bultzatu gura izan ditugu: disko pare bat argitaratu genituen, jaietako argazkiekin liburuska bi, *Egunkariaren* itxiera salatzeako agerraldia antolatu genuen, bertsoafariak, fotonobela bat, argazki erakusketa bi ekoitzi, ardaoen gaineko ikastaroak, liburuen aurkezpenak... Egia esan, ederto pasatu dugula aitortu behar dugu. m



EGUNKARIAREN ALDEKO AGERRALDIA. Espainiako gobernua *Eskaldunon Egunkaria* itxiarazi zuen orain hiru urte. Ezintasun handia sentitu genuen denok orduan. Gure haserrea eta ezintasuna kaleratzeko erabaki horren kontrako agerraldia deitu genuen Bizarra Lepoan Euskara Elkartea, Berbots Erandion Euskaraz, Algortako Bertsolari Eskola eta UK Uribe Kostako Aldizkariak (Algortako Geltoki plaza, 2003ko martxoaren 1a).



SARI BI. Oscarrak baino ilusio handiagoz jaso ditugun sari bi eman dizkigute. Batetik, Algortako Bertsolari Eskola ALBEk Ahobi saria eman zigun bertsolaritzaren alde egindako beharragatik; bestetik, Itxas Argia taldeak saritu gintuen Paella egunean...

ARGAZKI ERAKUSKETA IBILTARIAK. Bi antolatu eta ekoitzi ditugu. Bata, eskualdeko argazkilari onenek eskualdean ateratako argazkiekin (2004); bestea, Carlos Terrerosen skateari buruzko irudiekin (2005). Erakusketa biak Uribe Kostako herri guztietan zehar ibili dira.



ARDAOZALEAK. Edari miragarri hau miresten dugula ez dugu sekula ezkutatu. Gure jakinmina hasetzeko Itsaso Arana puntako somellerrarekin ikastaro bi antolatu genituen Algortako Arrigunaga txokoan orain dela zazpi bat urte. Bat, kata ikastaroa izan zen, eta bestea kaben gainekoa.



DISKO BI. Estilo erabat kontrajarriko disko bi argitaratu ditu UK-k. Bittor Egurrola gure lagun eta kolaboratzailearen kanta guztiak zekarren lehenengoak (*Bittor Egurrola 1968-1970*, 2000). Besteak, oster, eskualdeko musika elektroniko sortzaile berrien lanak bildu zituen (*UK projekt 01*, 2001).



BELTSOAFALIA. Garai batean bertsoafariak antolatzen genituen, guztira lauzpabost izan ziren. Baina zalantza barik oihartzun handiena lortu zuena Algortako Hong Kong jatetxe txinatarrean 1997ko abenduan Euskitze eta Irazurekin egin genuen *Beltsoafalia* izan zen. Gogoangarria!



EXTRA JAIK. Herrietako jaietan ateratako irudiekin fotografia-liburuska bi argitaratu ditu UK-k. Lehenengoa Mikel Martinez argazkilariak osatu zuen 2000n; bigarrenak Iñigo Azkonak 2003ko udan ateratako irudiak zekartzan.



KANTA LIBURUSKA. Bizarra Lepoan euskara elkartarekin batera 2001ean, betiko euskal kantak jasotzen zituen Kanta-liburuskak arrakasta ikaragarria eduki zuen. 1999an izan zen lehen edizioa.



FOTNOBELA. *Basagoiti 79* deitu zen fotonobela egin genuen 2000 urtean. Algortako ostatu bateko bezero zoroen arteko harreman are zoroagoak zituen hizpide *Basagoiti 79*-k. Ezkerrean aktoreak dituzue eta azpian fotonobelaren eszena bat.



BIZARRA LEPOAN GETXOKO ALDIZKARIA JAIO DA

Apirilaren 6an, Faduran eta berrehunen bat euskaltzaleren aurrean, Getxoko euskaldun guztientzako komunikabide izan nahi duen 0 zenbakiaren aurkezpena egin genuen. Hilabetekari izateko asmoarekin jaio ginen... Azkarregi ari ote garen zalantzarekin bada ere, aurrera egitea erabaki dugu, datorrena datorrela. Egia esan, aldizkariak, kritikak barne, harrera ezin hobea izan du eta baikor izateko arrazoiak baditugu: mila inguru zarete harpidedun eta kaleratu genituen hiru mila aleak erraz banatu ziren...



TAO-A EZARRIKO DA ALGORTA ETA AREETAKO ERDIGUNEAN

Egun batetik bestera, gure herriko hainbat kaletan azaldu diren lerro urdinek dagoeneko iristear dagoela dioskue. Abenduan zehar parkimetroak ezarri eta urte berriarekin batera indarrean sartuko da TAO. Areetan 1.670 aparkaleku izango dira egonaldi mugatukoak eta 640 Algortan. Hala ere, ez da baztertzen TAO eremua hedatzea. Txartel arruntaren salneurria denboraren araberakoa izango da, gutxienekoa 30 pztakoa izanik, orduerdikoa. Ordukoak 75 pzta balioko du, ordu eta erdikoak 115 eta hiru ordukoak 405. TAO eremuko bizilagunek etxebizitzako 2 txartel edukitzeko eskubidea dute eta eskuratzeko 6.000 pzta ordaindu beharko dute.

BETIKO IKASTOLAREN INAUGURAZIOA



Betiko ikastolak abenduaren 2an ospatu zuen bere inaugurazio festa. Egun osoan zehar trikitilariak eta txistulariak oso interesgarri zen egitarau bati lagunduz festa giroa piztu zuten. Inaugurazio ekitaldia baino lehen haur jolasak eta Goloka Kale animazioak, haur herri kirolak, zein Berantzagi Dantza taldearen aktuzioak gozatzeko parada egon zen. Ordu batean, inaugurazio ekitaldiaren ostean, bertsolarien txanda etorri zen...

1995 laburrean

- “Getxoko Surf Taldea sortu berri dugu” Juan Garate, Algortako surflaria.
- Alfredo Paya “Fredí”, gure promesa. 2. saria eskuratu du Euskal Herriko Bertsolari gazteen lehiaketan.
- Zorionak rugbyleriok. 20 urte bete ditu Getxo Rugby taldeak.
- HAPO onartze bidean. Herria itxuraldatuko duen egitasmoa.
- Joseba Santxo, idazle ditxosoa. *Ditxosozko ditxolaria* liburua kaleratu du.
- Gizatiar jaio da. Erromoko eta Areetako emakume talde batek elkarte berria sortu du.
- Gobelix “hil” da. Areetako gaztetxea itxiarazi zuten irailean.
- Iñigo Landaluze, gure promesa. Indartsu dator Punta Galeako txirrindulari jubenila.
- III. Jardunaldi Antimilitaristak. UZKlko kideek azaroan antolatu zituzten jardunaldiak.



ALGORTA ARRAUN TALDEAK TRAINERU BERRIA DAUKA

San Nikolas plaza lekuko, uztailaren hasieran eman zion bedeinkazioa herriko abadeak Algortako arraunlarien traineru berriari. Hiru milioi pezeta ordaindu duten fibrazko trainerua behar-beharrezkoa zuten algortarrek arraunlaritzaren garai berrietara egokitzeko eta aurrerantzean iazko emaitza kaskarrak hobetu ahal izateko.

BIZARRA LEPOAN EUSKARA ELKARTEAK BERBALAGUNA EGITASMOA MARTXAN IPINIKO DU

Behinola jaio zen eta gaur arte dirau euskara ikasten ari direnei lagun euskaldunak bilatu eta euskaltegitik kanpo euskara erabiltzen jarraitzeko helburua daukan proiektuak.



KOLDO SERRAK HACHAME FILM LABURRA AURKEZTU DU GETXO ANTZOKIAN

Uda hasieran Portu Zaharreko jaietarako kartel lehiaketa irabazi ostean, azaroan *Hachame* film laburra pantailaratu du Koldo Serra algortarrak. Bideo formatuan lan ugari eginak baditu ere, film hau 16mm-ko pelikula erabiliz (euskarri fotokimikoa) egiten duen lehenengoa da. (Akorduan edukiko ahal ditu Serrak orduko haiek, 2005 honen akabuan, itzal handiko aktoreak zuzentzen eta bere lehenengo film luzea egiten dabilen honetan?)



GETXOKO ARMARRIA BAZTERTU DU UDALAK, ETA BELAUNTZIDUN IKUR BERRIA DARABIL ORAIN

Getxori historikoki hain lotuta dagoen “Kaltea dagianak bizarra lepoan” armarría alboratu du Udalak. Alkatetzako zereginetan alkateak izenpetu behar dituen idatzi apurretan bakarrik erabiltzeko gelditu da armariaren irudia, eta gainontzeko idazki, iragarki, agiri... guztietan belauntzidun ikur sortu berria erabiliko dute... (“Urteen” poderioz, amarri zaharraren ikurra berreskuratu dute).

1996 laburrean

- “Herri honek euskara zerbitzu bat behar du udaletxean” Josu Landetak esana.
- Eneko Acero Bizkaiko surf txapeldun sailkatu da Sopelan.
- Getxo IV, Erromoko institutuak atea ireki ditu.
- Alkoholez polito kanpaina entzutetsua abian ipini du udalak.
- Dragatze lanak egingo dituzte Airiluzen 15 urteko arduragabekeriaren ostean.
- Ainhua Artetak Getxon abestu du
- Getxo Sokatira taldeko andrazkoek urtea daroate sokari eutsiz.



ERREKAGANEKO ETA MAIDAGANEKO TREN GELTOKIEN AUZIA

Gose greba, Ertzantza eta auzokideen arteko istiluak... gori-gori egon zen tren geltoki berrien egitasmoa: Maidaganekoek kendu dieten tren geltokia eskatzen dute, eta Errekaganekoak ez datoz bat geltokiaren kokagunearekin ezta pasabide berriarekin ere.

BEROGAILU ETA ITURGINTZA
INSTALAZIOAK

T: 430 53

Sarrikobaso 15

ETXEKO ELEKTROTRESNEN KONPONKETA

SERVITEC

- MARKA GUZTIAK
- 24 ORDUTAN ERANTZUNA
- 3 HILABETEKO GARANTIA
- 25 URTEZ ZURE ZERBITTU

& 94 430 52 00

Kasune, 18 • ALGORTA

GAVRKO

GIZONENTZAKO
MODA

Telletxe 5
ALGORTA
T:

moda gaztea
opariak

Torrene 2, ALGORTA
T. : 94 491 12 71

Egunkariak
prentsa eta aldizkariak

nahi izanez gero,
etxera eramaten dizugu
egunkaria!!!

JUSTIZIA JAUREGI BERRIAK ATEAK ZABALDU DITU

Urgul kaleko egoitza zaharrak atekak itxi ditu eta orain Konporte auzoan dago justizia administrazioarako eraikin berria, Getxoko Justizia Jauregia.



KORRIKA 10 GETXOTIK PASATU DA

Martxoaren 22an pasa zen Getxotik Korrika 10 gogoangarria, Arantzazun hasi eta Bilbon amaitu zena, 2.150 km egin ostean. Getxon barrena horietatik 41 km bete zituen.



1997 laburrean

- **Getxo interneten.** Udalak Getxoren leihoa mundu osora zabaldu du sarean.
- **Kable bidezko telebistaren** lehenengo saiakerak egingo ditu Euskaltelek Getxon.
- **Autoa erre diote Algortan** Iñaki Zarraoa EITBko zuzendari nagusiari.
- **Cosme Declaux** abokatu getxoztarra askatzearen aldeko hainbat manifestazio egin dira.
- **Xabier Paia bide onean** Bizkaiko eskola arteko bertsolari txapelketan nagusi, Euskal Herriko eskola arteko txapeldunorde.
- **Getxoko toponimiaren** azterketa egitea proposatu du Herri Batasunak, baina ezetza eman dute gobernua osatzen duten alderdiek.



“INBASIO MILITARRA”, INTSUMISOEN EKIMENA

Intsumisia puri-purian dagoen honetan, han eta hemen egiten diren ekintzen artean, intsumisoz osatutako brigada berezia maniobra militarretan ibili da Mungiako Soietxeko koartel militarren aurkako martxaren bezperan.



PRESOEN ALDE 3.000 LAGUN

Euskal preso guztiak Euskal Herrira lemapean, Getxorantz herri ekimenak antolatutako manifestaziora 3.000 lagun inguru batu ziren. Eta askoren ahotan ibili zen esamesa izan zen: bitxia zela pentsakera ezberdineko jendea ideia beraren inguruan elkarturik ikustea.



EUSKALERRIA TXALUPAK BERRIRO LOTUKO DITU GETXO ETA SANTURTZI

Txalupari elkarteak mende erdialdean sortu zen erreka ibilbidea berreskuratu gura du era honetan. Batelean 100 lagunentzako lekua dago, 20 min-ko bidaia da eta 200 pzta balio du.

BIOTZ ALAI ABESBATZAK 75 URTE BETE DITU

San Nikolas elizan meza, Manuel Gainza parkean geldialdia egin ostean, Fadurara abiatu ziren, han zituzten zain urteurrena ospatzeko herriko gainontzeko abesbatzakoak ere. Argazkian, 1923ko abesbatzan ibilitako eta omenaldia jaso zuen Iñaki Urrutia duzue.



HILABETEA DAROA ZABALIK GETXOKO GARBIGUNEAK

Aiboako Garbiguneak 33 tona hondakin baino gehiago jaso ditu pasadan otsailean zabaldu zenetik hona. Eta inguruetak 715 bat lagunek erabili dute zabortege berezi hau hilabete honetan.



GUREA ZINEMARI AGURI!

Gureak atekak itxi ondoren, Algorta zinema barik lotu da; ezin izan dio inguruko areto berriei aurre egin. Ia mende erdiz getxoztar askoren ametsetarako pantaila izan dena... amata da. Uribarritarrek 48 urtez zabalik eduki dute Gurea zinema.



1998 laburrean

- **Zarama biltzeko** zerbitzua egunerokoa izango da udalerrian eta baserri guneeetan bi egunetik behin batuko dute.
- **Droga-menpekotasuna** dutenentzako Eguneke zentroa zabaldu dute Erromon.
- **“La 31” Mus eskola** sortu du Luis Fernando Alava muslari ospetsuak.
- **Algortako Merkatua** elkarte pribatu baten esku utziko du Udalak.
- **Hamahiru kale berri** txori eta gizon ezagunen izena ipiniko die Udalak.
- **Beltso Afalia** antolatu du Bizarra Lepoan aldizkariak algortako txinatar jatetxean.
- **Bizarra Lepoan aldizkariak** egoitza berria dauka Ameztu kalean.
- **Ardoak dastatzeko ikastaroa**, aldizkariak antolatu duena, Jolastokiko Itsaso Aranak emango du.



XXI. MENDEKO AKORDIOA: BAI EUSKARARI

Euskararen Kontseiluak abian jarri du “XXI. mendeko akordioa: bai euskarari” ekimen erraldoia. Helburua: etorkizunerako oinarriak jarri mende berria euskararen normalizazioarena izan dadin.

**GALEA
ASESORES, S.L.**

**AHOLKULARITZA
JURIDIKOA, FISKALA
LABORALA ETA KONTABLEA**

Telletxe, 3 - 1. A • ALGORTA
% 94 460 95 12

*etorri
eta
ikusii!!*

ORIXA

liburudenda

Alangoeta 8 (Euskal Herria kalearekin bat)
Tfn.: 94 491 23 79
Algorta

Getxoko Andra Mari
Zerbitzu Estazioa

etxera
eroaten dizugu
gasoleoa

Bilbo-Plentzia errepidea 18. km
Getxo / Tel: 94 430 15 00

RENAULT ocasión

IBILGAILU IA BERRIEN GUNEA GETXON
“0 Km” dun ibilgailuak, Ibilgailu ia berriak eta Aukerakoak. **RENAULT**en bermearekin.
Getxo I Institutuaren ondoan

**RENAULT
BILBO BERRI**
Bizkorre/k. z/g - ALGORTA
Tel: 94 430 68 81
Jon Arróspide, 20 - DEUSTO
Tel: 94 448 39 00



AGUR BIZARRA LEPOAN, KAIXO UK

“Esku artean duzun aldizkari berri hau, Bizarra Lepoan aldizkariaren jarraipena duzu, irakurle, 3 urtez Getxo eta inguruko herrietan hilero banatu duguna. Nonbait ez gara konformistak eta argitalpen honek hazi behar zuela erabaki genuen. Horrela, Uribe Kosta osora zabaldu dugu, Erandiotik Lemoizeraingo euskaldun guztientzako aldizkariaren aldeko apostua egin dugu...”

1999 laburrean

- **Erromoko Gaztetxea** erditze bidean dago.
- **4.000 pzt**agaz **50 por ciento** film laburra egin du Juanra Peña erromotarrak.
- **Holandako sokatira mundialean** parte hartu du Getxo Herri Kirol taldeak.
- **Aratz Gallastegi** aurten Espainiako rugby selekzioagaz munduko txapelketan ibili ostean, honi uko egitea erabaki eta euskal selekzioaren aldeko borrokan sartu da buru belarri.
- **Irakurleentzako Txokoa:** euskarazko literatura irakurleen bilgunea abian jarri dute.

HOBEKUNTZA TEKNIKORAKO ZENTROA FADURAN

1994tik dago Faduran Eusko Jaurlaritzaren Kirol Zuzendaritzaren Hobekuntza Teknikorako Zentroa. Bertan goi mailako baliabideak dituzte kirolariak: tapiz birakorra, zikloergometroa, giharrak lantzeko gela, sauna, hemotologia eta biokimikarako laborategia... Otorduak eta garbiketa ordainduz gero bertan kontzentrazioak egiteko aukera daukate kirol federazioek.



ROBERTO LAISEKAREN LEHENENGO GARAIPENA PROFESIONAL MAILAN

Vueltan lortu du aspaldian Algortan bizi den Gernikako semeak profesional mailako lehen garaipena. 12 urte zituela hasi zen Punta Galean, gero Andarakako taldera alde egin zuen zaletu mailan jarduteko eta 24 urteagaz Euskadi taldeak bere bila jo zuen. (Gero ere garaipen gogoangarriak eskaini dizkigu Laisekari!)



ATEAK ITXIKO DITU JULIA LEARRAK

Abenduaren 31n behin betiko itxiko ditu ateak 1918tik zabalik dagoen Algortako denda historiko honek. Gaur egun eta aspalditik, Begoña Martinez dabil dendari lanetan, 70 urte eman ditu bertan. Denetarik saldu izan dute urte luze hauetan: oihalak, hariak, perfumeak, tabakoak, arrantza eta ehizarako tresnak, alpagatak, kaikuak, ikurrinak, umeentzako jolasak, moztorroak... Amaitzera doan mende honen lekuko izan da denda hau.



GETXO FOTOGRAFIA LIBURU EDERRA KALERATZEKO PUNTUAN

Getxoko Donibane Kultur elkarteak Gabon inguruan kaleratuko du *Getxo* fotografia liburua. Konrado Mugertza, Pedro Zarrabeitia eta Maria Elisa Zorriqueta dira gaur egun elkartearen osatzen dutenak, hirurak ere Getxoko Irudi taldeko partaide ohiak.



EREAGAN HONDARTUTA EGONDAKO RILOS ITSASONTZIA EROAN DUTE

Ekaitzak Rilos itsasontzia Santurtziko portura lotzen zituen lokarriak apurtu eta Ereagako hondartzaraino bultzatu zuen abenduaren 27an. Arazo batzuk direla-eta (kaskoa apurtzeko arriskua, 300 tona gasolioko depositoa hugarazi beharra, marea biziei itxarotea...) atoi untziek urtarilaren 22an lortuko dute Maltako bandera baina Kubako tripulazioa daukan Rilos itsasontzia Ereagatik ateratzea. Ereagan gertatu den 6. naufragioa ei da hau.

KURKUDI LIBURUDENDA ZABALDU DUTE ALGORTAN

Iñaki Ondarroak euskal literaturaren txoko berria zabaldu du Juan Bautista Zabala kalean. Esan legez, apalategietan euskarazko liburuak dira jaun eta jabe. (2004ko abenduan itxi zituen ateak Kurkudik).



SORNE UNZUETA “UTARSUS”-EK 100 URTE BETE DITU

Idazle, irakasle eta abertzale bilbotarraren begien aurretik mende osoa pasa da. 1968tik Algortan bizi da eta bere ibilbidean gehien landu duen alor literarioa poesia izan da, baina eleberri bat, eta beste lan batzuk ere idatzi ditu. Aldizkarietan argitaratu zituen bere lanak eta orain hiru urte ikusi zituen horiek guztiak liburu batean bilduak, Labayru ikastegiak kaleratu zuen *Idazlan guztiak* liburuan. (Sorne Unzueta, Bilbo 1900- Urduliz, 2005).



ANTIMILITARISTAK EPAITEGIAN; HORIETATIK HIRU GETXOZTARRAK DIRA

Maiatzaren 29an 7 gazte antimilitarista epaitu zituzten Bilbon, haien artean 3 getxoztar: Nerea Herran Muruaga, Igor Herran Muruaga eta Santi Lapatza-gortazar. Delitua: armaden abolizioa eta gastu militarrek gizarte beharretara bidera daitezela aldarrikatzeko, ekintza baketsuan, Gobernu Militarrean kateatu izana. Horrez gainera, 3 hilabete barru “gera kontseilua” izango dute gauza beragatik. Ekintza hartan ere Unai Molinero intsumisioa atxilotu zuten.

2000 laburrean

- **Manolito Laubegi** antzezlanak Bego Losada eta Leire Egurrolak euskaratu dute, eta Getxo Antzokian egin da estreinaldia.
- **Getxoko Pop-Rock lehiaketa** berreskuratu dute bizpahiru urteko etenaren ostean.
- **Bost Nazioak** txapelketan jokatu dute Getxo Rugby taldeko Idoia Salazarrek eta Nerea Martinezek.
- **Bittor Egurrolaren** 60. hamarkada amaierako kantak berriro bildu eta CD batean kaleratu ditu UK aldizkariak.
- **Itxas-gane,** herriko hainbat kultur zein kirol taldek topaleku berria daukate Algortan.
- **Egizu Getxo Euskaldun** egitasmoa martxan jartzeko hitzarmena sinatu dute herriko 4 euskaltegiek, Bizarra Lepoan Euskara elkarteak eta Getxoko Udalak.
- **Algortako Bertsolari Eskola** 20. urteurrena ospatzen du aurten.



IKASTOLEN HISTORIARI BURUZKO LIBURUA KALERATU DUTE

Idoia Fernandez algortarrak idatzi du *Oroimenaren hitza, Ikastolen historia 1960-1975* liburua. Datuak jasotzeko, iturri idatzirik ez zegoenez, ikastolak sortu zireneko pertsona esanguratsuenetara jo zuten.

San Nikolas IKASTOLA

ZABALDUZ GOAZ!

URTEBETETIK AURRERA
AUTOBUSA ESKUALDEAN
JANTOKI ZERBITZUA
ESKOLAZ KANPOKOAK (EUSKAL MUSIKA ETA KULTURA,
HIZKUNTZAK, KIROLAK DENETIK SURF, MULTIKIROLA...)

IKASTOLAK BEZALA, GETXON EUSKARA BULTZATZEN!!

ZORIONAK UK!!

ARENE AZPI, 15 - 48991 GETXO - TELF: 944 305 478 FAX: 944 305 477

AIXERROTA BHI

24 URTE EUSKARAZ IRAKASTEN

- TEKNOLOGIKOA
- BATXILERGOAK • NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK
- GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA (DBH) B ETA D EREDUAK
ZEREGINAK IKASTEKO GELA (A ETA D EREDUAK)

aurreinskripzioa: apirillean / matrikulazioa: uztailan

INFORMAZIO GEHIAGO: WWW.AIXERROTABHI.NET / 94 491 17 86



UNAI ELORRIAGAREN LEHENENGO NOBELA KALEAN

*SP*rako *Tranbia* bere lehenengo nobela plazaratu du Unai Elorriaga algortarrak. Lanbidez itzultzaile, 28 urte, literaturaren harrak jota bizi da Unai. Aldizkari honetako *UKronikagilea* ere bada, eta baditu han eta hemen hainbat ipuin berreiatuak...

2001 laburrean

- **Koska Irrati libre**a jaio zen (ordu
- **Sisifo Maiteminez** nobela kaleratu zuen Laura Mintegik.
- **Pool-a** ipini zuten La Kantera skate parkean.
- **Xabier Buenetxeak** Getxoko arrainen inbentarioa egingo du.
- **Algortako azoka** berriro zabalik zaharberritze lanen ostean.
- **Eleizpe eskaut taldeak** 30 urte eman ditu ume getxoztarrak hezten. (2004an desagertu zen).
- **Uribe Kostan bi zibertoki** besterik ez daude: Sopelnet (Sopela) eta H@ker (Algortan)
- **Eneko Acerok** Europako Surf Txapelketa bigarren aldiz irabazi berri du.
- **UKproiekt01 diskoa** eskualdeko musika elektroniko egileen kanta bilduma argitaratu du UK aldizkariak.

IÑIGO LANDALUZE ETA ROBERTO LAISEKA TOUR-ERA DOAZ

Euskaltel-Euskadi taldearen eskutik munduko probarik garrantzitsuenean parte hartuko dute Getxoko txirrindulari hauek, Frantziako Tour-ean hain zuzen ere. Landaluzek 24 urte dauzka eta Laiseka aurrekoa baino zazpi urte zaharragoa da. Batak ala besteak Getxoko Punta Galea txirrindulari taldean eman zituzten lehenengo pausuak.



ERROMOKO FERROKARRILAREN KOOPERATIBAREN ERAIKINA ERAITSI DUTE

Ehun urtez, mende osoa, Erromoko paisaiaren zati izan den Ferrokarrilaren Kooperatibaren eraikina bost minututan bota eta txikitu zuten hondea makinek irailean.



ETORKIZUNA MENDI TALDEAK ZILARREZKO EZTEIAK OSPATUKO DITU

Orain 25 urte Itxasgane Mendi taldetik talde berria jaio zen Algortan: Etorkizuna. Taldea jaio zenean herriko gazteen elkarte bakarra zen eta orduan inork ez zuen espero 25 urte iraungo zuenik. Baina mende laurdena bete du eta horrek ospakizun handia merezi du.



DERRIGORREZKO SOLDADUSKAREN AMAIERA OSPATU ZUTEN

Getxo Antimilitarista (GA) taldeko gazteek kale antzerkia antolatu zuten Algortako geltokiko plazan soldaduskaren desagerepena ospatzeko. Ostean, antimilitaristek gerrarik gabeko munduak marraztera gonbidatu zituzten ikusleak, eta 75 marrazki bildu zituzten.

GUREA ZINEMA ETXEBIZITZAK EGITEKO BOTAKO DUTE

Gurea zinemark 1951ko abenduaren 29an zabaldu zituen ateak eta 1999ko lehenengo egunetan itxi, Artea eta Kirol Portuko zine berrien eragina dela eta. Gureak eskaini zuen lehenengo filma *Alba de America* izan zen; azkena, berriz, “*La niña de tus ojos*”.



SAN NIKOLAS IKASTOLAK DENA PREST DAUKA IBILALDIA 02RAKO

Karramarro getxoztarraren haginei eskuak emanda, “lotu barik” ibiliko dira aurtien San Nikolas Ikastolak antolatzen duen Ibilaldia 02ra hurreratzaren direnak. Maiatzaren 26an da hitzordua eta ordurako dena prest, egoki antolatuta, azken orduko egitekorik gera ez dadin... 2.000 lagun baino gehiago dabilta lanean. Ibilaldirako abestia ikastolako ikasle ohi Gaizka Elosegik eta Jon Etxeandiak sortu dute.

UK ARO BERRIARI BEGIRA

...Ohiko komunikabide erraldoien ahotsak bezain garrantzitsuak (bere txikitasunean bada ere) dira beste batzuk, gurea kasu. Hori sinesten dugulako, akaso burugogorrek garalako, edo auskalo zergatik, ez dugu etsi nahi eta esku artean darabilzun orrialde sorta hau da gure azken ahaleginaren emaitza: atal berriak, orrialde kopuru bikoitza, herriz herriko atalak...



2002 laburrean

- **Getxo Futbol taldeak** 75 urte bete ditu.
- **Gaztetxe berria dauka Algortak** J. B. Uribarri kaleko lantegi abandonatuan. (uztailean eraitsi zuten eraikina)
- **Nudismoa** arautu nahi zuen agindua atzera bota du Getxoko udalbatzak.
- **Erromoko Ziztu Bizian** eskaut taldea 10. urteurrena ospatzen dabil.
- **Estatuko aberatsenak** gara, Donostiagaz batera, Caixa banketxearen arabera.
- **Antezaleak elkarteak** 20 urte bete ditu.
- **Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia** onartu du Getxoko Udalak.
- **Komiki Azokaren** lehenengo edizioa antolatu du Kultur Etxeak.



BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO

Kantxa
Kirol moda



350 m²

KIROLERAKO
BEHAR DUZUN
GUZTI-GUZTIA!!

URIBE KOSTAKO
KIROL DENDA

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA
48990 ALGORTA / TF. 94 491 18 82

cianoplan
global printers

Vila de Plentzia 6. zbk
Antiguo Goll - Getxo
Tlf. 944 649 087
944 648 691
http://www.cianoplan.es

Reprografía

- Imprimatze eta plano kopiak
- Kartelak kolorez eta z/b
- Digitalizazio eta bektorizazio, automatikoa eta lagundua
- Fotokopiak kolorez eta z/b
- Era desberdinetako koadernaketak
- Plastikazioak
- Cd eta DVD grabaketak eta inprimaketak
- ermarkaketak



2003 laburrean

- UK hamabostekaria
- **Gazte Bulego berria** zabalduko dute Tangora Etxean (Algorta).
- **Van't Hoffen ilea** Unai Elorriagaren 2. nobela kalean dago dagoeneko.
- **Egunkariaren ibxiera** salatzeko eta kazetariei laguntzeko batzordeak sortu dira herrian: Areetan, Erromon, Algortan...
- **Dortoka arrotzak** kendu dituzte Bolueko hezegunetik.
- **Kalean txiz egin** eta orduz kanpo zaborra ateratzeagatik 30-300 euroko isuna jarriko dute; gorotzak kalean uzteagatik 90 euro, kartelak ipintzeagatik 60-126 euro...
- **“Una bala”** Ibon Antuano getxoztarraren film laburra Tokioko zinemaldian garaila.
- **“Esanak Esan!”** diskoan batu ditu Algortako Gazte asanbladak eskualdeko taldeen kantak.
- **Etorkinen erregistroa** sortzekotan dabilta.
- **Emakume Bideak** antzerki zikloak 5 urte bete ditu.



VILLAMONTEKO KULTUR ETXEAREN EGOITZA ZABALIK DAGOENEKO

Algortako kultur etxeak, 20 urte eta gero, agur esan dio Urgull kaleko eraikinari, eta Villamonten dauka orain egoitza berria. Orain, modernotasuna darion soilairu bakarreko eraikinera ohitu beharko dugu apurka-apurka algortarrok.

SAN INAZIO PLAZAKO MONOLITO FRANKISTA BOTA DUTE



1948ko monolito frankista bota dute dagoeneko. 80ko hamarkadan kendu zuten monolitoak zeukan sinbologia frankista. Monolitoa kentzeko erabakiak hasarre asko piztu zituen herriko hainbat sektoretan: PPK eta zenbait hiritarrek oroigarria bertan uzteko eskatu zuten, ETaren biktimen omenezko sinbolo modura; guztira 2.400 sinadura batu zituzten. Hala ere, azkenean, bota egin dute.



IKER FUENTES EUROPAKO SURF TXAPELDUNORDE BERRIA

Iker Fuentesek, nazioarte mailan Acerotarrekin batera daukagun surflaririk onenetarikoa, Lanzaroten egin den Europako zirkuituaren azkenengo proban parte hartu du orain dela gutxi. Eta bertan finalerdietan jausi bazen ere, bigarren tokia eskuratu du sailkapenean.



ITXARTU DANTZA TALDEAREN ZILARREZKO ABARKAK

Iaz hasi ziren Itxartukoak 25. urteurrena ospatzen. Udan hasi eta udan amaitu, “urte oso bat eman gura genuen urteurrena gogoratzen”. 1977ko martxoan egin zuten lehenengo ekitaldi publikoa, Jose Antonio Agirre lehendakariaren urteroko omenaldian. Dantza taldea bakarrik zen Itxartu hasieran, baina denboraz hainbat adar sortu zitzaizkion: mendi taldea, trikitixa eskola, antzerki taldea...

URIBE KOSTAKO LEHENDABIZIKO SEXU-DENDA ZABALDU DUTE


“Bode’s Sex Shop” izeneko denda zabaldu du Algortako Etorbidearen 86. zenbakian Andoni Bilbaok, maiatzaren 9an. Eskualdean zabalitzen den lehenengo sexu-denda da Algortakoa. “Sexuarekin zerikusia daukan guztiak diru asko ematen du”, diosku Bilbaok. (Hala ere, 2004 aldera itxi zituen ateak Algortako sex-shopak).





ADITUAK GARA PINTXO ETA BOKATA BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51
ALGORTA

Saioa Barruetabeña, Miss Euskadi 98  “Nire izena entzun nuenean ezin nuen sinestu”	Humberto Cirarda, Getxoko alkatea  “Udal honek, neurri handi batean, komertzioaren mesedetan egin du hirigintza”	Mikel Clemente, errealizadorea  “Benetako arrakasta izan da: Literas modu independentean egiteko gai izan garela”	Fredi Paia, bertsolaria  “Berez gauza sinplea da bertsolaritza”
Mertxe Zubiaur, bikoizlea  “Pertsonaiari sinesgarritasuna eman behar zaio, horrek esan nahi du antzeztu behar dela”	Fermin Aio, Elkartasun Bideak saioa  “Herri horiek berez aberatsak dira, dagoen arazoa da aberastasuna txarto banatuta dagoela”	Pascual Molongua, kantaria  “Esplotatu gabeko diamantea naiz ni”	Nerea Onaindia, futbolaria  “Ez kobratu arren, jarraitu behar dugu, soilik gogor lan eginez lortuko dugu errekonozimendua”
X. Buenetxea, basogintzako ingeniaria  “Natura, orain, inoiz baino gehiago erasotzen ari gara”	Mari Carmen, Senideak-eko kidea  “Etxean nahi ditugu, horixe da gure lema”	G. Iribarnegaray, idazle eta bidaiaria  “Botswanan lehoiak eta beste hainbat pizti gugandik hurbil ibiltzen ziren”	Begoña Abaitua, San Nikolas ikastola  “Kalean ez da beti euskara entzuten eta hori lortu behar dugu: euskara kalera ateratzea”
Toru Kanari, gitarra jolea  “Euskaraz berba egiten ikusten ninduten eta aho zabalik geratzen ziren”	Sabin Arana, Jolastokiko sukaldaria  “Nire sukaldaritzaren oinarria betiko euskal sukaldaritza da”	Jose Maria Cundin, artista  “Egunero Annapoliseko portura noa, ekialderantz begiratu eta hodeiertzetik agurtzen zaituztet”	Rosa Temiño, Biladi elkarte  “Izugarría da hildako batzuek beste batzuek baino balio handiagoa izatea”
Gotzon Zulueta, prebentzio teknikaria  “Gaur egun, gazteen artean, alkohola eta aisialdia lotuta doaz”	Unai Garate, antzerkigilea  “Kezkatzen nauten gauzak islatzen ditut nire idazlanetan”	Jaione Agirre, modan aditua  “Ukitu pertsonala ematen jakin behar dugu; edertasuna ez dago lorean, ontzian baino”	Miren Malaxetxebarria, Gobela ikastola  “Ez gara fio Hezkuntza Sailarekin, beti berandu dabil”



475. URTEURRENA OSPATUKO DU LEIOAK

Datorren urriaren 19an (2001) Leioak 475 urte beteko ditu; 475 urte Erandiotik banatu zenetik udalerrri independente bihurtzeko. Orduetik hona hainbat gauza gertatu dira herrian eta Ana Lopez historialari gazteak garrantzitsuenak bildu ditu liburu batean. “*Leioako historiari buruzko liburua da, baina ez da historia liburu arrunta, data historikoz betea. Nire ustez, historia hori baino askoz gehiago da. Jendea da historia idazten duena... hori batzen ahalegindu naiz*”, azaldu du Lopezek.

ERROTAZAR, ERROTA BERRI

Elxaldeko errota zaharra 23 urtez geldirik egon ostean, ostabere martxan jarriko dute aurtengo (2001) irailean.



BIDEZKO MERKATARITZA

Larunbat goizero Biltoki taldeak bidezko merkataritza oinarritutako merkatua zabaltzen du San Jose auzoan, eta hileko lehenengo igandean Leioako elizan. (2001eko maiatza).



LEIOAZTARRENTZAKO UK JAIO DA

UK-k Uribe Kostako euskaldun guztien euskarazko aldizkaria izan nahi du. Orain zuengandik hurbilago egoteko, Leioarako propio egindako lau orrialdeko gehigarri txiki batez osatu dugu aldizkaria. Hilero kaleratzen da UK eta hilero aldizkariarekin batera jasoko duzue leioaztarrok herriko albisteen berri. (2000, maiatza)



ALONSO, KARTING-EKO 125-250 KATEGORIAKO EUSKADIKO TXAPELDUNORDE

Alberto Alonsok 24 urte dauka (1999), eta anaietako batek bultzatuta erosi zuen lehen autoa. Orduetik hona bide aipagarria egin du leioaztar honek, lorpenek behar beste oihartzunik izan ez badute ere. Iaz karting-eko 125-250 kategoriaiko Euskadiko txapeldun izan zen; aurtun, bigarren sailkatu da.

EUSKARAZ ERDU MERKATURA!

Euskara Zerbitzuak gure hizkuntza sustatzeko nahian egitasmo berri bi prestatu ditu: Merkatarri eta Erdi berbetan. Lehenengo kanpainaren asmoa merkataritza eta lan munduan euskarari bultzada ematea da, dendei laguntza eskainiz, etab. Bigarrenak, berriz, Leioako talde, elkarte eta erakundeetan euskararen erabilera sustatzeko helburua dauka.



ANDRAK EMAKUME ELKARTEA

Andrak Leioako emakume elkarte sozokulturala da. 1990ean eman zituen lehen pausuak, eta Ana Cespedes presidentek azaldu legez, “helburua emakumeak etxetik irten eta, beste emakume batzuekin batera, hainbat proiektutan parte hartzea da”. Momentu honetan (2003) 50 tailer dauzkate martxan eta taldean 2.000 emakume daude izena emanda.



BEIRA PUTZEGILEEI OMENALDIA EGIN DIETE

Joan den irailaren 6an (2002), Lamiakon eskultura baten inaugurazioaz, Leioako udalak eta Lamiakoko Vicrila enpresak gorazarrea egin zioten aspaldi desagertutako putzegileen lanbide gogorrari. Batez ere atzeritik etortzen ziren putzegileak eta hain lanbide gogorra eta neketsua zenez euren lanaldia 5 ordukoa baino ez zen, arrunta 12 zenean.

HAINBAT GARRAIOBIDEK ERABILI AHAL IZANGO DUTE GELTOKI INTERMODALA

Atzerapen hadi samarraz bada ere (iazko udarako egon behar zuen amaituta) laster (2002) leioaztarrek geltoki berria izango dute. Metrokoaren ondoan dago eta hainbat funtzio edukiko ditu: autoen aparkaleku, autobus geltoki... eta etorkizunean tranbia ere abiatuko da hortik.



TRIVIALEAN JOKATUZ, LEIOA EZAGUTU

Euskarri informatikoan plazaratu da (2002) Leioari buruzko galderak dituen Trivial jokoa. Guztira, 2.000 ale banatuko dira eta gura duenak 3 eurotan erosi ahal izango du kiosko eta liburutegietan. Guztira 700 itaun izango ditu jokoak: geografia, historia, artea eta literatura, kultura, kirolak eta bitxikerien inguruak, beti ere Leioari buruzkoak.



LEIOA MENDI TALDEAK 10 URTE BETEKO DITU

Gur herrian mendeazaleok badugu zaletasun honi lotzen gaituen topagunea: Leioako Menfi taldea. Ez da egitasmo berria, orain hamar urte jaiotako ideia baten emaitza da. Hasiera batean herriko lagun talde bat biltzen zen honen inguruan ea euren lehenengo urrats haiek “ameslari talde” bezala gogoratzen dituzte. Eta 10. urteurrena ospatzeko argazki lehiaketa eta erakusketa antolatu dituzte. (2002, apirila).



LEIOA EMAKUMEEN TALDEA ATHLETICERA DOA

Athleticen kirol egitura integratuko da Leioa emakumeen futbol taldea. Sinatutako akordioaren arabera, leioaztarrek, Athleticen beste talde eskumendekoez bezala, kamiseta zuri-gorria jantziko dute, partidu ofizialak Lezaman jokatu dituzte eta entrenamenduak Leioan. (2002ko, uztaila).



— 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskalduna.

— Ingelera 4 urtetik aurrera.

— Frantsesa DBHn.

— Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia (sukaldea bertan), merienda.

— Eskolaz kanpoko ekintzak: musika, gitarra, adierazpena, saskibaloia, eskupilota, bertsolaritza, euskal dantzak...

— Frontoia, futbito zelai estaliak, berdeguneak...

Artatza Auzoa 84, LEIOA • Tf: 94.464.23.64 / 94.464.33.07
e-mail: leioa@ikastola.net • www.ikastola.net/ikasweb/leioa



TIRAGOMAGILE
LEIOAZTARRAK

Duela urte bat baino gehiago hasi ziren zaletasun honegaz, baina dagoeneko milaka tiragoma egin dituzte Enrique Pardok eta Francisco “Richard” Urkijok. Goizero-goizero hiruzpalau ordu ematen dituzte lonja txiki batean. *“Hemen 3.000 edo dauzkagu, eta eman beste 500 edo 600 emango genituen”* dioskue. Tiragomak oparitu egin dituzte baina azaldu dutenez, *“etorri zaigu baten bat erosiko zigula esanez, baina hau denborapasa da, ez dugu kobratzen; Corte Inglesek baino eskari gehiago dauzkagu”*. (2003).



FUTBOL MUNDIALITOA
JOKATU DUTE LEIOAN

Hiru eguneko atzerapenagaz bada ere, abenduaren 8an (2003) hasi zen Leioako Futbol Mundialittoa, Kolonbiako eta Euskal Herriko taldeen arteko lehiak. Dakizuenez hainbat herrialdetako etorkinek osatutako taldeek eta Euskal Herrikoak jokatu dute Mundialittoa Sarriena futlbol zelaian.

AUZOTARROK ELKARTEAK
URTEA BETE DU

Leioako sei auzo batzen dituen elkarteak lehenengo urtea bete du, oso gogotsu. Peruri, Artzagane, Aldekoane, Artatza, Basañese eta Telleria auzoak hartzen ditu bere baitan elkarteak. *“Auzo hauek guztiak sakabanatuta daude; gure asmoa leku horietara kultura eroatea da auzokoen artean loturak sor daitezen”*, dio elkarteko presidente Igor Bilbaok.



GAZTE EGUNA ANTOLATU
DU KRASKA KONPARTSAK

Kraska Gazte Konpartsak 5 urte daramatza gazteentzat jarduerak antolatzen. Aisialdi eredu aske eta gaztea aldarrikatzen dute gazte leioaztarrok. Aurten (2004) erronka handia hartu dute euren gain: Gazte Eguna ospatzea, eta urtero ekimena errepikatzea da asmoa. Gazte leioaztarren eskulanean azoka, pilota, sokatira, harrijasotzaileen erakustaldia, kontzertuak... aurreikusten dira egun horretarako.



“IRAKATSI JAN” ELKARTE
GASTRONOMIKOA ORAIN 30
URTE SORTU ZEN

Orain dela 30 urte sortu zen Irakatsi Jan elkarte gastronomikoa Pinueta auzoko Nafarroa kalean. Erromo aldean baxoerditan ibiltzen ziren eta inguruko zenbait koadrila batu eta handik sortu zen txokoaren proposamena. Euren baieztatzen duten legez, *“ez da gauza bera bazkaria edo afaria jatetxe batean ala hemen egitea; lagunarteko giro aparta sortzen da-eta gure txokoan”*. 60 kidek osatzen dute elkarte eta barikuro egiten dute bazkaria.



MASKARADAREN
ZILARREZKO EZTEIAK

Maiatzeko azken barikuan, ohiturak agintzen duenez, Marik, Akerrek, Sugarrek eta beste pertsonaia mitologiko ia denek Lamiako auzoko kaleak hartuko dituzte. Aurten (2004), gainera, xarma berezia dauka: maskarada antolatzen hasi zirenetik 25 urte joan dira eta.

F. Atxalandabaso, txakolingilea



“Lehengo txakolinak ez zeukan gaur egungoarekin zerikusirik, garratza eta ozpindua zen”

Juan Iriberrri, biologoa



“20.000 pinguinoen artean egotea sekulako sentsazioa da”

Andres Hernandez, poeta



“Emakumeak miresten ditut, ama, maitale, emazte, alaba, lagun... moduan”

B. Amezaga, Ondiz-Altzaga ikastola



“Artatza ikastetxean ondo moldatzen gara baina ez da gure etxea eta ez da berdin”

Ana, estankokoa



“Gaur egun, lehen ez bezala jendeak erosi eta ospa egiten du, ez dute berba egiten”

Gotzon Bilbao, Aterpe Gazte Bulegoa



“Aterperen erabilera gazteek dituzten beharren arabera dago”

Ainara Trigueros, zinemagilea



“Nik ez ditut ekintza askoko istorioak kontatzen; senti-menduak adierazi gura ditut”

Joxean Ramos eta Kixkur



“Kixkur eroan nuen eta hara non irabazle suertatu zen, aipamen berezi eta guzti”

Itsaso Ruiz, albaitaria



“Halabeharrez bokazioko lanbidea da albaitariarena”

G. Bilbao, Euskal Kirol Zaleak



“Ez dira inoiz jende andana erakarriko duten kirolak izango, baina zaletasunak badirau”

Valentin Bazan, botikaria



“Ikusten dut bezeroek gero eta gehiago egiten dutela hemen euskaraz”

Iñigo Bilbao, bidaiaria



“Lortu dudana saririk handiena Patagonian ezagututako jendea izan da”

Monica Villanueva, Gazte Bulegoa



“Edozein zalantza argitzen eta informazio zuzena ematen saiatzen gara”

Asier Elordui, zinema arduraduna



“Pelikularik onenak prezio merkean eskaintzen ahalegintzen gara”

Claude Muller, patinatzailea



“Arazo guztiak atzean utzi eta askatasun sentsazioak hartzen zaitu patinatzen duzunean”

A. Garcia, Umore Azoka



“Zorionez talde askok euren lanak estreinatzeko Leioa aukeratzen dute”

ERA GUZTIETAKO
ERROTULOAK eta
INPRESIO DIGITALAK
egiten ditugu

e-mail: hirustab@euskalnet.net
Iparragirre etord. 90 (Avanzada) • LEIOA • Tfno. 94 480 41 15 Fax: 94 480 41 83

udondo

taberna

eguneko menua eta afariak

Lehendakari Agirre,2
T: 94 463 00 45 - LEIOA

- Maidagan, 35 GETXO Tel. 94 491 11 25
- Mayor, 17 AREETA Tel. 94 464 77 29
- Sabino Arana, 67 LEIOA Tel. 94 464 40 58
- Telletxe, 11 ALGORTA Tel. 94 460 32 14
- Sabino Arana, 9 SOPELA Tel. 94 676 11 01

KURKUDI

HERRIKO TABERNA

Presoak eta iheslariak etxera

Eguneko menua

Sabino Arana, 82 beheka LEIOA



BONBOLINAK ANTZERKI TALDEA

1992an andrez osaturiko Bonbolinak antzerki taldea sortu zuten Erandioko emakumeen elkarteak antolatutako ikastaro batean. Urte hauetan guztietan makina bat lan oholtzaratu ditu taldeak: *La casa de Bernarda Alba*, *Tengamos el sexo en paz*, *La nada cotidiana*. Argazkia 2001ean atera genien.

JUAN INAZIO ARESTI, TXAKOLINGILE BIKAINA

Orain dela bost urte egon ginen Juan Inazio Arestirekin Goierriko bere baserrian. Orduan oso estimatua izaten zen 2.000 litro txakolin bikain egiten zituen berak bere mahastietako fruituekin. Inguru txakolingile asko baziren ere, bera izan zen Bizkaiko Txakolina izendapena lortu zuen bakarrenetakoa. Argazkian, Josu, Juan Inazioren semea.



JOSE RAMON BENITO KATXAS

Elkartasuna bizimodutzat aukeratu zuen laguna dugu herrian denok Katxas goitzenarekin ezagutzen dugun lagun hau. Erandioztar ibiltaria mundu osoan zehar ibilia da, beti laguntzeko prest. Gu orain dela bost urte egon ginen berarekin eta MSF (Medicos sin fronteras) erakundearen zebilen beharrendu orduan, behartsuenen bizi baldintzak hobetzen.



2001EAN JAIO ZEN UK ERANDIO GEHIGARRIA

Berbots Erandion Euskaraz taldearen ekimenez Erandiorako propio lau orrialdeko gehigarria argitaratzen hasi zen 2001eko otsailean. Gehigarri hau Berbots taldeko kideek osatzen zuten eta UK aldizkariarekin banatzen zen Erandion. Urtebetez argitaratu zen gehigarri hau, ondoren Erandioko edukia UKren edizio orokorrean argitaratzen hasi ginen.

ONGI ETORRI BERBOTSU!

Berbots Erandion Euskaraz taldeak 2001eko San Agustin jaietan egindako bazkarian euren elkarteko kide berri eta berezia aurkeztu zuten: Berbotsu. Urte hauetan taldearen irudi bihurtu da Berbots Erandioko panpin euskalduna.



JON SALVADOR NEW YORKEKO MARATOIAN

Herriak eman duen korrikalaririk handiena da Jon Salvador. Bere palmaresa ikaragarria da: Bilboko San Silvestrea, Amurrioko eta Mungiako krosak... 2003an New Yorkeko maratoin 32.000 korrikarien artean 59. sailkatu zen (argazkia urte horretakoa da). Urte hartan ere, Saharako erdi maratoin hartu zuen parte.



GOIZ-ALDE DANTZA TALDEA

Dantzan, bere jardueran, urte gehien daraan taldea da Goiz-alde. Dagoeneko 50 urte bete ditu herriari bizitza ematen, euskal folklorea suspertzen eta irakasten. Atzerrian ere makina bat alditan erakustaldiak egiten, beti ere arrakasta handiz. Lagun talde handia da Goiz-alde, urte askotarako!



NISHMA, SAHARAREN ALDEKO ELKARTEA

2002an Erandion, eskualdeko hainbat herritan bezala, saharaiaren aldeko elkartasun taldea sortu zuten. Uda partean hango umeak gurera ekarri, Saharako herriaren egoera ezagutzera emateko kanpainak egin, jaietan parte hartu... ekimen polit asko egin dituzte.



KANTATZEN DUEN HERRIA EZ DA HILTZEN

Kantagunea Santa Agedaren inguruan sortu zen orain sei urte eta ikastolan sortutako ekimena izan arren, edonor hurbildu daiteke hara. Josu Zarate izan da taldearen ardatz nagusia. Kantuez gozatzeko, gure herriko historia eta bizipenak ezagutzeko eta herria girotzeko biltzen direla azaldu zigun Josuk.



ATXAZPE MENDI TALDEA

Talde bizia da Atxazpe. Ehunka mendi irteera antolatu ditu bere ibilbide luzean. Honez gain beste ekimen batzuk ere bultzatu ditu azken urteotan herrian. Ezagunena udazkeneko antolatzen duten mendiaren eta mikologiaren kultur astea da. Alboko argazkia aste hori antolatzen ari ziren lagunei atera genien 2003an.



Iñaki Bitxitegia

OMEGA, LONGINES ETA TAGHEUER
AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza T: 430 23
Telletxe 1 T: 460 27

Algorta

Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen

94 491 13 37

Errotalde ileapaindegia

HARTU TXANDA TELEFONOZ!!

T: 460 38 90

Errotalde 18A / ANDRA MARI, GETXO

GARBIKO



GIZONENTZAKO
MODA

Telletxe 5
ALGORTA
T:

María Jesús

ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA

Alangobarri 10
T: 4910821
ALGORTA

HARTU TXANDA



Basolanak

- Zuhaitzen landaketa
- Podak
- Itxierak
- Garbiketak
- Tratamendu fitosanitarioak

Lorategien zainketa
D E I T U !

T. 94 467 17 13

F. 94 467 42 41

ERANDIO (Bizkaia)

Mobila

Asier: 629 411 838

e-posta: basolanak@terra.es

TRABUDU TABERNA



Jai giro jatorra,
zatoz!

Trabudu kalea 1 • ASTRABUDUA
T. : 94 467 48 28



AZKEN BENDEJERAK

Rosario Udondo, Isabel Etxebarria, Bego Azkue, Miren Zarraga eta Rita Larrondo. Gehiago ere baziren Erandioko bendejerak, urte askoan euren ortuetako jeneroa-eta plazan zuzenean saltzen ibili zirenak. Merkatuaren desagerpenarekin batera jubilatu ziren guztiak eta, beraz, azkenak egin zuen ogibide honek herrian. Eurei gure esker ona.



ERANDIO 122 ARGAZKITAN LIBURUA KALEAN

Erandioko udalaren laguntzaz eta Edyfoat enpresaren ekimenez Erandioko bilakaera erakusten duen fotografia liburua aurkeztu zen iazko uztailen. Baseriak, dorretxeak, burdinolak, auzoak eta industria garapena ataletan banatuta dago liburua, eta herria ezagutzeko zein kanpoan ezagutzera emateko tresna egokitzat jo zuen alkateak lan hau aurkezpen egunean.

EUSKARA BIZIBERRITZEKO PLAN NAGUSIA

Euskaraz bizi nahi duten herritarrei horretarako aukerak bermatzeko behar diren hizkuntza-politikako neurriak erabakitzea du helburu nagusi Plan honek. Aitziber Oliban zinegotziak aurkeztu zuen lau urterako plan estrategiko hau iaz. Euskararen Aholku Batzordeko kideak ere aurkezpenean izan ziren eta euren kezkak azaldu zituzten.



ZUMETA MARGOLARI HANDIAREN LANAK MERKATUAN

Orain urtebete Emilia Epelde eta Mikel Mardarasek Zumetaren erakusketa paregabea antolatu zuten erakusketa areto handia bihurtutako merkatuan. Erandiara kulturaren eta artearen munduko jende andana hurbildu zen inaugurazioaren egunean.



GOIHERRI SOKATIRA TALDEA MUNDUKO TXAPELDUN

Ameriketako Estatu Batuetako Rochester hirian iaz egin ziren mundialetan klubaren arteko urrezko domina lortu zuen Goiherri lurgaineko munduko sokatira txapelketan. Selektzioen atalean, baina, Laukizko Gaztedi eta Erandioko Goiherri taldeko tiralariek osatutako selektzioak Espainiaren izenean tiratu behar izan zuten Euskal Selektzioak ez zuelako lekurik izan. Gauzak horrela, aurretiaz hartutako erabakiarari eutsi zioten: nahita galdu zuten finala.



EUSKAL SELEKZIOEN ALDE ASTRABUDUAN

Iazko uztailaren 3an Astrabuduan egin zen Euskal Selektzioen aldeko jaialdi arrakastatsua antolatu zuten goiko argazkiko lagunek. Atxazpe Mendi Taldea, Ipar Haize Txistu Taldea, Trabudu Dantza Taldea, Astrabuduko Kick-Boxing Taldea eta Askobegi Athletic Peña elkarlanean ibili ziren egunpasa eder hura prestatzen.

Fidel Castro, rugbyilaria



“Errugbiak lagunak egiteko eta mundua ezagutzeko aukera paregabea eman dit”

Pepe Rayo, kantaria



“Erandion oso ezagunak ziren Pijos en salsa verde, Caminando por la calle eta Jado kantak”

Marian de la Fuente, Berbotseko kidea



“Euskal mundua murrizta eta zabala da aldi berean”

Ignacio Abarca, tren gizona



“Makinak bost tona ikatz irensten zituen eta paladaka bete behar genuen labea”

Lala Mujika, Aldarte taldekoa



“Gay eta lesbianok badugu ezkontzaz gain bestelako erreinkaziorik ere”

Izaskun Urkijo, judoka



“Nire ametsa 2005eko munduko txapelketan parte hartzea da”

Garbiñe Monasterio, dendaria



“Euskaraz gero eta kartel gehiago ikusten da dendetan”

Javier Vizcaino, kazetaria



“Cocidito saiorako osagairik aurkituko ez banu, poztuko nintzateke”

Izaskun Arrizabala, eskubaloio jokalaria



“Harro sentitu naiz Euskadiko selektzioan jokatu dudalako”

Juan Miguel Bombin, idazlea



“Nobela bat, poema bat batez ere bizitzako esperientziatik sortzen da”

Jose Luis Zarraga, karretero



“Arriagako idi-mantak baserriko kortara eroatea da nire ilusioa”

Maria Jose Gojenola, kale saltzailea



“Nire kordoi eta kandelak Don Nikolasak bedeinkatzen ditu”

Igone Etxebarria



“Indumental dagoen lekuen nire osabak kiskillak koitun zituen”

Jose Ignacio Blanco, Keli taldekoa



“Denetarik egiten dugu: hankapaluak, mosaikoak, argazkigintza...”

Lebis Abarka, artisaua



“Orratza, larrua, haria eta zulatzeak tresna; besterik ez dut behar bizmodua ateratzeko”

Luis Mari Ateka, asmatzailea



“Futbol zelaietan istripuak saihesteko segurtasun hesiak asmatu ditut”

Guillermo Uria, Ategorri institutua



“Plano bat zer den, kameraren mugimenduak, argiztapena... irakasten dugu”

Saioa Alonso, Basetxea-n egondakoa



“Basetxean egon eta gero, ohartu naiz zelako indar eta eragina duen telebistak”

Araitx Gojenola, hezitzailea



“Tangerrekoak kamioi azpietan ailegatzen dira penintsulara, bereberek pateretan”

Txelo Martinez, Kukularra auzo elkarte



“Ikastolarekin batera 77 familia bizi gara hemen eta auzolanean egin nahi dugu lan”



*Ikasiz bizi
eta bizitzen
ikasi*

GOBELA IKASTOLA

Gohierri 14 Neguri GETXO - Tel / Faxe: 94 460 08 03

OSABIDE HORTZ KLINIKA

Arantza Etxebarria

- Odontologia oroko-
ma
- Ortodontzia
- Periodontzia

Biðeharri 27, beheko eskuina
ALGORTA
94 94 430 76 96





TORREKOLANDAKOEK SOKATIRAKO MUNDUKO TXAPELKETAN JARDUN DUTE

Holandako munduko goma gaineko sokatira txapelketan (2000) parte hartu dute Berangoko Torrekolanda taldekoek. Gizonezkoen 600 kiloko mailan hirugarren postua eskuratu dute, beraz, brontzezko domina ekarri dute herrira.

DAGOENeko BERANGOK ERE JASOTZEN DU UK

UK-k Uribe Kostako euskaldun guztien euskarazko aldizkaria izan gura du. Orain (2001eko ekaina) zuengandik hurbilago egoteko asmoagaz, Berangorako propio egindako gehigarri txiki batez osatu dugu aldizkaria.



BERANGOKO TXAKOLINGILEEK ELKARTEA OSATU DUTE

Berangon uste baino txakolin gehiago egiten da, urtero 4.000 litrotik gora egiten dira herriko mahastien fruituekin. Txakolingile berangoztarrek, guztira 13, euren elkartea osatu dute herrian. (2002)



AGUR PEPIREN DENDARI

Nork ez du ezagutzen Kurtze auzoan oraintsu arte (2002) zabalik egon den janari denda eta honen jabea zen Pepi? Bada, Pepik, Kurtze “nazioarteko” bihurtzea lortu zuen, herrian ez eze, inguruko herri askotan ere oso ezaguna izan da-eta denda hau. 1983ko azkeneko egunetan denda zabaldu zuenetik egunero egon da zabalik, domeka, gabon zaharrak edota jaiegunak barne.



“ARGAZKIAK: 35 URTEZ EZKONDUTA...” ERAKUSKETA

Garbiñe Bidaurreazaga Karabiazpi Erretiratuen elkarteko presidentea da eta “Argazkiak: 35 urtez ezkontuta...” orain dela gutxi arte (2002ko apirila) Berangoko Kultur Etxean ikusi ahal izan den erakusketaren bultzatzailea. Bideurreazagak dioenez, “berangoztarrok elkar ezagutzeko aukera ematen duelako egin dut erakusketa hau”. Guztira, 122 familiaren laguntza eta argazkiak jaso ditu.



GURE ANTIXINEKON BOZA

Iñaki Gaminde ikerlari bilbotarrak Berangoko euskararen gaineko liburua argitaratuko du laster. Joan den urriaren 18an (2003), liburua inprimategira bialdu aurretiko azken egin beharrekoa egin zuten Berangoko udaletxearen aurrean: liburua osatzeko Gamindek elkarriketa egin dienen erretratua. Arrazoi desberdinengatik ez daude diren guztiak. Liburuagaz batera ere CDA kaleratuko dute, Berangon geratzen diren azken euskaldun zaharren testigantzak zuzenean entzuteko modua izan dezagun.

55 UME JAIO DIRA AURTEN

Berangon 55 ume jaio dira 2002an, azaroaren 15era arte. Iaz, urte osoan, 49 jaio ziren. Euskal Herriak dauka Europako jaiotza-tasa bajiuna, baina Uribe Kosta da joera horren salbuespenetako bat.



JABIER OTXOA BERRIRO BIZIKLETA GAINEAN

(2003-maiatza) 2001eko otsailaren 15ean jasandako istripu latzaren ostean, lehenengoz hartu du parte txirrindulari berangoztar gazteak lasterketa batean. Basaurin egin da paraolimpiko mailakoa, eta baliteke Otxoak bere ibilbide osoan zehar lortutako garaipen handiena izatea berriro ere txirrindula gainean lehiatzearena. (Ordutik hainbat dira Otxoak txirrindularitzan lortutako dominak).



SEI HERRIK ANTOLATZEN DUEN IBILALDI NEURTUAK 20 URTE BETEKO DITU

Sei Herri kultur elkarteak antolatzen duen ibilaldi neurtuak 20 urte beteko ditu, horregatik aurtan (2002) berezia izan da ospakizuna. Sei Herrikoek ez dute ibilaldia bakarrik prestatu gura izan, eta hainbat ekitaldi prestatu dituzte haren inguruan: hitzaldiak, bestelako irteerak...



KULTUR ETXE BERRIA ZABALDU DUTE SANTA ANA AUZOAN

Azken urteotan begibistakoa da Berangon biztanle kopurua handituz doala, eta honi lotuta hiri-zabaltzea ere nabarmena da. Ondorioz, Udala eta Kultur Etxearen zentroak eta zerbitzuak ugaltzeko beharra ikusi dute udal arduradunek. Egoerari aurre egiteko kultur etxe berria zabaldu dute Santa Ana auzoan, eskola zaharra zegoen tokian dago.

IA 100 ETORKIN DAUDE HERRIAN

Guztira 95 dira gaur egun (2002) Berangon bizi diren etorkinak. 1995 urteaz geroztik etorriak dira gehienak, ia denak Europa eta Amerikako hainbat herrialdetatik. Berbarako: Alemaniatik 15, Kolonbiatik 14, Boliviatik 12, Ekuadorretik 10, Belgikatik 7, Holandatik 7, Argentinatik 7... Amerikarrak dira nagusi, guztira 55, eta ostean europarrak (35) daude.

Basurto

Algorta S.L.

altzariak

LEHEN, ORAIN ETA BETI

- **1970**az geroztik altzariak diseinatzen.
- 300 m²ko erakusketa **ZURE ZAIN!**
- **ARMAIRUAK NEURRIRA** egiten ditugu *(Telletxe 4)*

Telletxe 4 • T: 460 71 62 / Telletxe 15 • T: 460 42 44 • ALGORTA

**BERANGOKO IGOERA,
AUTO-LASTERKETA**

Lehenengo Berangoko Igoera auto-lasterketa antolatu dute uztailearen 12rako (2003). Josu Ugarte lasterketa-auto gidari leioaztarra da bultzailea eta argitu duenez, ez da rallya izango, igoera baino: *“rallyak egun osoa irauten du, igoera labur eta azkarra da”*.



MUSIKA ESKOLAK 15 URTE

Berangoko Musika Eskolak 1989-1990 ikasturtean ekin zion bere partitura idazteari. Ordutik eta gaur arte Juana Mari Calatraveñok trebatu ditu berangoztar gazte asko musika munduan. Musika Hizkuntza, piano, txirula eta koru eskolak eskaintzen dira bertan. (2004)



**OTXANDATEGI DANTZA
TALDEAK 60. URTEURRENA**

Gutxienez 60 urte bete ditu aurton (2003) Simon Otxandategi dantza taldeak, 1943an taldea egon bazegoela frogatu ahal izan da, lehenagotik existitzen ete zen jakiterik ez badago ere. Nazioarteko jaialdiategaz ospatu du dantza talde berangoztarrak 60. urtemuga.



LASTER BERANGO SAREAN

Berangoko Udalak laster (2003) edukiko du prest web orrialde ofiziala, eta haren helbidea ere erabakita daukate: www.berango.net. Lantik enpresa dabil orrialdea egiten eta azaldutakoaren arabera “itxura modernoa” edukiko du, gainera, hainbat egiteko udaletxera joan barik egiteko aukera eskainiko du.

**URTEBETEKO IBILBIDEA
BETE DU OSASUN ETXEA**

Urriaren 4an (2003) lehen urtea bete du Osasun Etxe berriak. Denetarikot iritziak sortarazi ditu epe horretan, baina leku aldaketa hoberako izan dela diotenak dira nagusi.



**KORRIKOLARI ONENAK
BERANGOKO MILIAN**

Berango Atletismo taldeak eta udalak antolatzen duten Nazioarteko Miliak korrikolari ezagunak ikusteko aukera eskainiko du, adb.: Rui Silva, Reyes Estevez eta Carla Sarmiento.



Begoña Santamaria, harakina



“Behi zoroekin ez genuen salmenta arazoirik izan, bezeroek konfiantza handia dute gugan”

R. Fernandez, futbito entrenatzailea



“Oraindino ilusioa badaukat, baina adina eta nekea ere igarri egiten dira”

Unai Urrutia, ehiztaria



“Ehiztariok gara ekologistarik handienak”

Sabin Latorre, herri kirol entrenatzailea



“Bizkaian 200 kilo hartzen lelenagoak izatera ailegatea konsegidu gendun”

Emilio Garcia, pilotaria



“Pilota lanbide baten modura har daiteke, beste munduko ezer ez izan arren”

Encarni Andres, Gurasoen Elkarte



“Eskolaz kanpoko jarduerak bultzatu nahi ditugu, beti ere giro euskaldunear”

Juan Luis Mugertza, irakaslea



“Idaztea oso zaila da, nik ez daukat inongo beharrik, plazer hutsagatik egiten dut”

Patricia Rapson, jostuna



“Patchwork teknikaren bidez modu berezian elkartzen dira oihalak irudiak sortzeko”

Xabier Rebollo, futbol entrenatzailea



“Lantokitik Lezamara, handik etxera eta asteburuetan partiduak; horra nire bizimodua”

Imanol Rodriguez, perretxikozalea



“Soriaraino joan izan gara, baina gehienetan Gorbeiairen Araba aldean ibiltzen gara”

Esther Zorrozuza, idazlea



“Neguriko burgesia zelan sortu eta beste klase sozialekin nahastu zen kontatu dut”

Cosme Naveda, medikua



“Urte asko dira hemen nagoela, eta denak ezagutzen ditut Berangon”

Endika Basaguren, artista



“Futbolean olgetan ez dakitenen bidea da artea”

Josune Pascual, Pasioaren antolatzailea



“Aste Santuko hitzordu bazterrezina da Berangoko Pasioa”

Ekaitz Hernandez, musikaria



“Euskara ez da muga musika-proposamen bat nazioartera eramateko”

Ignacio Pascual, Berango Futbol Taldea



“1990ean Bilbao Athleticen aurka futbol zelaia inauguratu genuen Berangon”

aldai

TAPIZTEGIA

DEKORAZIOA

ERAKUSKETA

ETA TAIERRAK

Basagoiti etorbidea 32
Tf: 460 90 31
48990 ALGORTA

20 NIVERTS RI

URTEURREN

KLIMATIZAZIO

INGENIARITZA

INSTALAZIOA

MANTENIMENDUA

Otxandategi tar Simon 114
48640 Berango, Bizkaia
tel. 94 668 15 51
Taxa. 94 66829 92
e-mail: vasa@euskalnet.net

Scras Julia Learra

JANTZIAK, NIKIAK, EUSKAL ARROPA,
MOZORROAK ETA GABONETAN
BEHAR DUZUN GUZTIA!

Juan Bautista Zabala 3, 48991 ALGORTA / Tfno. 94 460 04 62

Zure publizitatea hemen

Zure publizitatea hemen

Zure publizitatea hemen

Zure publizitatea hemen

94 491 13 37



HERRIKO ERESERKIA IA PREST

Gutxi falta da sopeloztarrek euren herriaren ereserkia ezagutu dezaten. Uribe Bazterra Banda, Barinatxe Txistularien Elkartea eta San Pedro Schola Cantorum abesbatzak parte hartu dute ereserkiaren grabazioan, Begoña Hervasen zuzendaritzapean. Carlos Ibarrak sortu du ereserkirako musika eta Ismael Etxebarriak idatzi du kantua. Urdulizko Tio Pepe estudioan grabatu dute. (2003)

LAIAK, TOPALEKU BERRIA SOPELAN

Betantxu kalean apirilaren 25an (2001) zabaldu zituen ateak Laiak-ek. Zabalik daroazen egun hauetan goiz, arratsalde eta gauetz ere bete-beterik egoten da, euskal museo txiki eta polit baten antza daukan taberna.



BIZKAIKO HERRIRIK GAZTEENA

Sopela da Bizkaiko herririk gazteena (2003). Biztanleen %55,75ek 40 urte baino gutxiago daukate (6.152 lagunek). Iaz, 114 umetxo jaio ziren herrian, eta 102 urteko aguretxo bat da herriko zaharrena.



ITALIAKO GIROA, SOPELARA

Joane Somarriba txirrindulari sopeloztarrak irabazi du aurtengo (1999) Italiako Giroa. Orain urte batzuk andrazko txirrindularitza talde profesional baten bila Italiara joan behar izan zuen Somarribak eta talde horregaz, Alfa Lume taldeagaz hain zuzen, lortu du “maglia rossa” janztea. (Gerora lortu ditu, bata bestearen atzean txirrindularitzako sari potoloenak).



ARITZ LARRINAGA, BODYBOARDEKO PROMESA BAINO GEHIAGO

Hawaitik bueltan aurkitu genuen (2000), irribartsu, bertan lortutakoagaz pozik. Iaz bodyboardeko Europako gazte txapeladuna izan zen, aurtun goi mailako Europako txapelketan 2. eta munduko probetan 37. postuan sailkatu da 19 urteko sopeloztarra.



EDORTA ROMANEK “BEHATOKI” METEOROLOGIKOA ZABALDU DU

Iñaki Deuna kalean dago Edorta Romanek erdi algotarra erdi sopeloztarra den meteorologoak bost lagunekin batera zabaldu berri duen Sirimiri Meteo Consult enpresa. Sopelatik iragartzen dute, beraz, biharko eguraldia.



IGERILEKUAK ZABALTZEKO IA DENA PREST DAGO

Apirila aldera (2003) zabalduko dituzte lehenengoz Sopelako igerilekuak. Dagoeneko lanak amaituta daude eta Imanol Garai Kultura zinegotziaren arabera, “epe guztiak ondo betetzen dabilta eta seguru asko Aste Santua ailegatu baino lehen zabalduko dituzte igerilekuak”.



ESAERA ZAHARRAK GOGOAN, ETA EUSKARA AHOAN

X. Esaera Zaharren Txapelketa (2003) antolatu zuen, urtero legez, Sopelako Nikola AEK euskaltegiak. Sopelako kaleetan zehar, banatutako zerrendako atsotitzak gogoratzea eta botatzea zen eginbeharra. Aurtun ere arrakastatsua izan da ekitaldia.



ESKOLA SOPELOZTARRA HONDURASEN

Jose Maria Saez sopeloztarrak eskola bat eraiki du (2003) Honduraseko Guanchias izeneko herritxoan. Sembrando Futuro GKEko kide da Saez eta 52 ikaslerentzako eskola eraikitzen laguntzen ibili da. Sail ureztatuan ere jardun du sopeloztarrak eta barbarako tomateak eta piperrak landatzen eta jateko prestatzen irakatsi die Guanchiasekoei.



IBILALDIA 04 ANTOLATUKO DUTE SOPELAKO ETA LEIOAKO IKASTOLEK

Alkarregaz Heldu lemapean datorren urteko Ibilaldia prestatzen hasi dira Sopelako Ander Deuna eta Leioako Betiko ikastolak. Leioan ondo errotutako pertsonaia mitologikoak, Lamiak, eta Sopelan sustrai sakonak dauzkan kirolak, surfak, osatzen dute logotipoa: surf ohola baten gainean doan lamia.

Loteria Sopela

Iparraginre 6, Sopela




- Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Eleaniztasuna
- Esperientzia eta berrikuntza

Gatzarrine z/g. Sopelana
Tfnoa.: 946760266 - Email.: sopela@ikastola.net

JATETXE BEGETARIANO

- Eguneko menuak
- Asteburuetan menu bereziak

Sertutxa 4, Sopela
Telf. erreserbak: 645 732 991



4 bide pinturak



Loroño 2 • Tlf/Fax 94 676 29 92 • SOPELA
Iturribarria 3 • Tlf: 94 442 01 55 • BILBO

URIBE-BAZTERRA BANDA GAZTEA

Sopelako Udal Musika Bandak, Uribe-Bazterrak, 2000 urtean eman zuen lehenengo kontzertua Larrabasterran. Gaur egun (2004), Begona Hervasek zuzentzen duen bandan 42 dira musika-tresnak, 42 musikariak.



IGELTSERA GAZTETXEA

Mecanica La Peñaren aurretik pasatu eta langile borroka, enpresa txiki-ertainen gainbehera, eraikin ahaztu eta antzuak... zetozkigun gogora. Baina emankor bihur zitekeela ere imaginatzen genuen. Eta orain dela gutxi (2005) itxaropen kolorez margoztu eta bete zuten Sopela eta Urdulizeko gazteek, baina esperantzari bizia ito diote.



IKAS-BIDAIA TINDUF-ERA

Ander Deuna ikastolako 1.go Batxilergoko ikasleek Tinduf-eko saharaiar errefuxiatuen kanpamentuetara egingo dute ikasketa bidaia abenduan (2004), gutxi gorabehera 30 bat ikasle joango dira. (Handik bueltan, herri saharaiuaren aldeko Nuyum elkarte sortu zuten Sopelan).



BIDAIA LUZE BATI GORAZARREA

Sei sopoloztarri omenaldia egin zitzaizen azaroaren 24an (2004) Nagusien Etxean: Maria Delia Garay, Maria Luisa Basaldua, Lorenza Martinez, Marcelina Alonso, Ruperto Delgado eta Francisco Gomez Salazar. Gizonezkoak 90 urtetik gorakoak denak eta andrazkoak 95 urte baino gehiagokoak guztiak.

TOMATE ERRALDOIAK

Bareño-Torre baserriko ortuan tomate eder bi jaio dira, ederrak eta erraldoiak: txikiak ia kilo eta erdiko pisua dauka besteak kilo eta 700 gramo. Bihurrien batek tomate transgenikoak direla pentsatuko luke, baina Iñaki Ugarteren tomateak Larrabasterrako lur emankor eta itsas haizeak hazi dituzte hain polito.



TXOPEL SARIAK BANATUKO DITU UDALAK

Sopelako izen ona lau haizetara zabaltzen duten elkarte, lagun edo erakundeak saritzeko jaio dira (2004) Txopel sariak. Txopel egunean, urriak 29an, egin zuten sari banaketa eta lehenengo postuan geratu zirenek artean "Txuzo" garaikurra jaso zuten.

David Bustamante, Tai-chi irakaslea



"Ezin dut zapatarik jantzi"

Xabier Ugalde, Ander Deuna ikastola



"2004ko Ibilaldia antolatzeke aukera asko dauzkagu"

Urko Gaztañaga, baserritarra



"Ohiko nekazaritzan erabiltzen diren pestizidak ez ditut erabili gura"

Erica Likete, Barnetegia



"Barnetegia saio bi egin litezke, ikusi ez diren gauza pilo bat gertatu dira-eta"

Xabier Saitua, argazkilaria



"Zuri beltzekoak, norberak errebelatuak nahiago ditut digitalak baino"

Maria Luisa Bilbao, ileapaintzailea



"Domeketan ere egiten nuen lan, gauerdia arte, jan barik, oraingoek ez!"

Jose Mari Amezcaga, motorzalea



"Nire motorrek milioi erdi kilometrotik gora egin dute"

Nuria Perez, Sopelanako Gauak



"Gazte askok ez daukate batzeko lekurik, horregatik guk jarduerak eta lekua eskaintzen diegu"

Joanes Igeregi, bertsolaria



"Gazteon aldeko apustua egiten ez badute 20 urte barru nor ibiliko da plazatan?"

Maria Victoria Resano, erizaina



"Tabakismoa gaixotasun kronikoa da eta erretzeari uzten laguntzea da sendagaia"

Unai Espina, Moreaga Ugerzaleak



"Lauzpabost urtean oso maila oneko taldea edukiko dugula uste dut"

Aloña Aranaga, diseinugilea



"Cortefieli zapiak saldu nizkion, ez didate berriro deitu baina dirutza ordaindu zidaten"

DIDAK hamilton IDIOMAS

Ingelesa, Frantzesia eta Alemana

- Taldeak, enpresak eta partikularrak
- Eskolaz kanpoko ekintzak
- Maila guztiak
- Ingelesa 3 urtetik aurrera
- Talde txikiak
- Ingalaterran egonaldiak

Dr. Landa, 6 / 48600 Sopela.
Tel: 94 676 30 12
didakhamilton@euskalnet.net

VASCASA

inmobilia -

Vascasa Sopelanak irabazien %3 bezeroak auke-ratzen duen Gobernu Kanpoko Erakundeari ema-

- Zure etxebizitzaren dohainezko balorazioa
- Vascredit finantziarioa, zure neurrira
- Zure salerosketen kudeaketa osoa
- Zure etxebizitza saldu baino lehen, jarri gurekin

Eleizalde kalea z/g. 48600 Sopelana
t.: 94 676 37 08 - Fax: 94 676 50 18 - sope-

Isabel Gezura, irakaslea



"Ezin gara alor batera mugatu, hainbeste gauza dago munduan egiteko!"

Txente Martinez, Garden Center



"1900 urtean nire birraitite hasi zen loragintzan"

Cefe Amari, Ugeraga taldekoa



"Aurten taldeak 25 urte bete ditu, pozik gaude. 350 lagun dabilta kirolean taldean"

Javier Hernandez, margolaria



"Pinturan herrian zegoen hutsunea bete nahi dugu Zirrimarra taldearekin"

01 SOPELNET S.L.

Jokoak sarean •
Txapelketak • Internet •
Txat • E-mail • Lanak •

ordenagailuen salmenta
zerbitzu tekniko
kontsumitzeko gaiak, zure etxean

Zubigane, 5 - 48600 SOPELANA
e-mail: 01sopelnet@terra.es
www.geocities.com/sopelnet

% 94 676 00 62- Fax: 94 676 52 30



AITA GOTZONI GORAZARREA EGIN DIOTE BARRIKARREK

San Blas egunean (2003) -Barrikako egun handia- 33 urtez Barrikako abade izandako Angel Lizaur “Aita Gotzon”eri omenaldia egin zioten herrian, Udalak antolatutako ekitaldi batean. Besteak beste, beraren omenezko aureskua dantzatu zen, eta Udalak oroigarria eman zion. (Argazkian, Aita Gotzon erdian, umearen atzean, lagunez inguratuta).


ARATZ DANTZA TALDEAK 25 URTE BETE DITU

Bi neskek dantzan ikasteko gogoia zeukatela- eta iragarki batzuk ipini ei zituzten Gorlizko kaleetan. Horiei erantzunez 20 bat lagun batu ziren, gaur 90 dantzari inguru dabiltza. Lehen agerraldia 1980ko Santiago jaietan egin zuten.



KAKARRALDO

Zazpi urte dira Kakarraldo emakumezkoen taldea sortu zenetik, baina aurren (2000) larri dabiltza jokalaririk falta dela eta.



GORLIZ 1900 LIBURUA ARGITARATU DU JORGE ZAMORAK

Herri baten historia liburu batean laburbiltzea ez zeregin erraza. Ondo baino hobeto daki hori Jorge Zamorak, orain dela 20 urte hasi baitzen Gorlizen gaineko ikerketa egiten. “Azken 100 urteotan Gorliz asko aldatu da, eta gaur egungo herriak ez du 1900ean zuen irudiarekin inolako zerikusirik”, aitortu du Zamorak.



URDULIZ ALDEKO BERBA LAPIKOA HIZTEGIA OSATU DU IÑAKI GILISASTIK

Iñaki Gilisasti Fano urduliztarrak bere herriko eta eskualdeko euskararen gaineko hiztegia plazaratu du: *Urduliz aldeko berba lapikoa*. 10.000 berba eta esakera batu ditu Urdulizko Euskara taldeko gazte honek liburuan.



PLENTZIAK 700 URTE!

Halaxe da, 700 urte bete ditu aurren (1999) Plentziak. 1299an Lope Diaz de Harok bere iloba Diegok emandako eskubide baten bitartez sortu zuen herria. Modu horretan, Gorlizko Gaminiz auzoa Plentzia izeneko itsas-herria izatera igaro zen. Bi herrien arteko harremanek gorabehera handiak ezagutu zituzten, baina arazo horiek urrun gelditzen dira gaur egun. Diego Lopez de Harok emandako eskubideek gainontzeko herrietatik bereizten zuten Plentzia. Zorionak, bada, Plentzia!

LEMOIZ ZELATAN EI DABIL PANTERA BELTZ BAT

Lemoiz aldean, Andra inguruetan “lukia baino animalia askoz handiago bat eta beltz-beltza” ei dabil zelatan: pantera dela esan dute. Arrastoak aurkitu ei dituzten arren, andra batek bideoan harrapatu badu ere, arduradun eta adituek ez dute pantera aurkitu eta atrapatzerik lortu (2003). (Aurren berriro agertu da pantera bat Gorlizko inguruetan).

J. Quevedo, Gorlizko alkate eta ingeniaria



“Unibertsoaren azalpenaren nire teoria adituen aurrean defendatu nahiko nuke”

Fito, musikaria



“Dena zoragarria balitz ez nintzateke abesten egongo”

Herri Torrontegi, motorzalea



“Munduko txapelduna izan banintz harroago egongo nintzan; ahal izan nuen guztia egin nuen”

A. Renteria, Plentziako Itsas Museoa



“Bertokoek arbasoen bizimodua ezagutu dezakete, gainerakoek itsasgizonena eta herriko historia”

Maitane Ruiz, Plentzia telebista



“Bertokoak Berri albistegia, Nahaspila (kirolak) eta Atzokoa Gaur da momentuz gure menua”

Asier Andueza, Gorliz irratiko zuzendaria



“Geure helburua herriko informazioa, informazio lokala ematea da”

Mario Pardo, aktorea



“Aktoreen artean ere klase sozial desberdinak daude”

V. Hernandez eta A. Ortuondo, kooperanteak



“Itzuliko gara esatean, zuek ere gezurra esango al diguzue? zioskuten umeek”



TXIBERRI e d a n t o k i a frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ

T: 94 676 07 15

BASTARTENA



URDULIZ

Teléfono: 946 761 128

Ajuria
taberna

Andrés Cortina 2

ALGORTA



BASALBO BASERRIA

JATETXEA

TEL./FAX: 94 491 34 91

MARTITURRI ESTARTA 18
48993 ANDRA MARI - GETXO

basalbobaserria@yahoo.com



JOSE IGNACIO LOBO



JON BERNARDEZ (APRILUZE, 2001)



MIKEL MARTINEZ (PLENTZIA, 2000)

Azken urteotako onena

Zorionez argazkilari handiak dauzkagu gure eskualdean, zorionez aldizkari honetan euren lanak argitaratzeko prest azaldu dira beti. Hamar urte hauetan aldizkari hau irudi ederrez jantzi ahal izan badugu eurei esker izan da. Orain arte argitaratu ditugun argazki horien guztien artean aukeraketa bat egin dugu. Goza ezazue!



ASIER MENTXAKA (ERANDIO, 2004)



ASIER MENTXAKA (GETXO, 2003)



DAVID HERRANZ (PORTU ZAHARRA, 1993)



CARLOS TERREROS (GETXO, 2001)



ASIER MENTXAKA (BERANGO, 2002)



MIKEL MARTINEZ (PORTU ZAHARRA, 2000)



INIGO AZKONA (PORTU ZAHARRA, 2003)



ASIER MENTXAKA (SOPELA, 2003)



CARLOS TERREROS (ALGORTA, 2003)



ASIER MENTXAKA (GORLIZ, 2004)



WILLY URIBE (MENAKOTZ, 2001)



IKER ELORRIAGA (GETXO, 2002)



CARLOS TERREROS (ALGORTA, 2003)



JOSE MARI MARTINEZ BUBU (SOPELA, 2003)



JOSE MARI MARTINEZ BUBU (SOPELA, 2003)



FEDE MERINO (PORTU ZAHARRA, 1997)



MIKEL MARTINEZ (URDULIZ, 2000)



ALFREDO ALDAI (AREETA, 1999)



ANABEL MENDEZ (LEKEITIO, 2004)



JUAN GOMEZ (GETXO, 2004)



AITOR GALBARRIARTU (LARRABASTERRA, 1997)



ASIER MENTXAKA (ADIERROTA, 2003)



FEDE MERINO (ERFOMO, 1977)



KONRADO MUGERTZA (ALGORTA, 1998)

[berbetan]

Gurean esandakoak

Aldizkari hau sortu genuenetik gutxi izan dira gaur egun arte iraun duten atalak. Horietako bat Berbetan izenekoa da. Elkarrizketa luzeak eta sakonak jorratu ditugu Berbetan atalean beti. Politikariak, musikariak, enpresaburuak, euskaltzaleak, aktoreak, kazetariak, idazleak... modu batera edo bestera euskal gizarteari euren ekarpena egin dioten 120 lagun baino gehiago elkarrizketatu ditugu hamar urteotan. Ezinezkoa zen guzti-guztiak orrialdeotan azaltzea eta batzuk aukeratu behar izan ditugu. Hemen doatzuez, laburpen gisa, lagun hauetako batzuk eta euren berba aipagarrienak.

Iñaki Zarraoa, EITBko zuzendaria (1995)



“Euskal Herrian inon baino telebista gubxiago ikusten da. Sano xamar gaude oraindik”

Irene Manzano, aktorea (1995)



“Telebistan aktorea azkeneko panpina izaten da beti”

Federico Krutwig, idazlea (1995)




“Gebxon pertsona guztiek badute aire aristokratikoa, neskameek eta langileek ere bai”

Maria Teresa Agirre Lekube (1995)




“Leku guztietan oroitzapen ona utzi behar da”

Jose Felix Azurmendi, kazetaria (1996)



“Tarteko jarreretan egotea, ez da batere erosoa”

Iñaki Lores, gudaria (1996)



“Gorbeiako frontetik ikusi nuen Gernikako sarraskia”

Iñaki Saitua, Getxoko kultur etxekoa (1996)



“Etorkizunean Getxo euskalduna ikusiko dugula uste dut”

Txolo Landaluze, enpresaburua (1996)




“Autodeterminazioa inork ukatu ezin digun eskubidea da”

Roge Blasco, kazetaria (1996)



“Andra Mariko paisaia galtzen badugu, geure izaeraren zati bat galduko dugu”

Vicente Larrea, eskultorea (1997)



“San Mamesek futboleak bezala, Guggenheimek lan didaktikoa egin behar du artean”

Joseba Santxo, bertsolaria (1997)



“Ondo dago zaleak bere gustuko bertsolariak txalotzea eta gus-tukoak ez direnak txistukatzea”

Anton Aurre, politikaria (1998)



“Frankismoan azpikeriak egiten genduzan; propaganda banatu... eta hori baino gehiago ere bai”

Julio Ibarra, kazetaria (1999)



“Ematen du zenbait komunikabide indarkeriarekin hobeto bizi zela”

Ruper Ordorika, kantaria (1999)



“Bi harik lotzen naute; batak nire lurrera, hizkuntzara, eta besteak nire sasoiara, rock-era”

Lexuri Gallastegi, dantzaria, 2000



“Dantzak neure burua ulertzen laguntzen dit”

Xabier Euzkitze, kazetaria (2002)



“Bertsolari izan nahi nuela ez nintzen konturatu izan nintekeela ohartu nintzen arte”

Albero Iñurrategi, mendigoizalea (2002)



“Felix mendian galdu ostean oso une txarrak pasatu nituen”

Benito Lertxundi, kantaria (2002)



“Zoriontasuna eta zorigaitza gora eta behera etengabe dabilen penduloa da”

Anjel Lertxundi, idazlea (2003)



“Beldurra diot alde bakarrek agertzen dizkidan prentsari, politikariari zein literaturari”

Bernardo Atxaga, idazlea (2004)



“Ia ezinezkoa da paradisuaren ideiarik gabe bizitzea”

Edurne Pasaban, mendigoizalea (2004)



“Askotan pentsatu dut: hainbeste sufritu behar dut nik hau egiteko?”

Maddalen Iriarte, kazetaria (2002)



“Niretzat oso pozgarria izan zen ETAre su etena iragartzea, neuk eman nuen albiste hori”

Fermin Muguruza, kantaria (2002)



“Neu beti izan naiz ateo, baina ateo konbentzitua, antikatoliko amorratua!”

Alex de la Iglesia, zinemagilea (2002)



“Umetan futbolerako taldeak aukeratzean hautatzen zuten azkenetakoa nintzen ni”

Gari, kantaria (2004)



“Hertzainak ez zen musika talde bat bakarrik, hori eta gehiago zen”

Uxue Barkos, politikaria (2004)



“25 urtean lehen aldiz, nafarrok Kongresuan hitz egingo dugu”

Alex Ubago, kantaria (2004)



“Ez nuen uste inork inoiz musikan jarduteko aukera emango zidanik”

Manu Chao, kantaria (2003)



“Horrela jarri digute, gurekin edo gure kontra. Bartzelonan ere, okupak ETAkoak ei dira”

Martxelo Otamendi, kazetaria (2003)



“Injustizia latzak egin dira eta guk ez daukagu erantzuteko tresnarik”

Jose Elorrieta, sindikalista (2003)



“Egoera larrian dauden pertsonak datozkigunean, ezintasun handia sentitzen da”

Mikel Urmeneta, Kukuxumuxu (2004)



“Berehala ohartu ginen estilo sinpleak arrakasta handiagoa zuela landuak baino”

Jean Haritschelhar, Euskaltzaindia (2004)



“Euskaraz txarto egiten dela? Nehor ez da behar den bezala mintzo”

Jose Luis Zumeta, margolaria (2004)



“Ezin dut hitzekin esplikatu koadro batekin zer adierazi nahi dudan”

Margarita Uria, politikaria (2005)



“Beti esan dut EAJ eskumako alderditzat jotzea ez dela zuzen-zuzena”

Ainhua Arteta, abeslaria (2005)



“Ahotsa da gehien adierazten eta gehien hunkitzen duen musika tresna”

Marivi Bilbao, aktorea (2005)



“Beste izen bategaz egiten nuen behar aitzak aktore nenbilela jakin ez zezan”

Aitor Zabalgoeaskoa, MSF (2005)



“Inoiz esan beharko da osasungintzak negozioa izateari utzi beharko diola”

Pello Sarasola, telebista gizona (2005)



“Telezaborraren aurkako bide zuzenena dohaina da, baina dohain falta dago”

Kirmen Uribe, idazlea (2005)



“Uste dut hurrengo urteetan iritsiko direla gure belau-naldiaren libururik onenak”

Koldo Serra, zinemagilea (2005)




“Spielbergekek eta beste pare batek baino ez dute benetan gura dutena egiten”

Andoni Egaña, bertsolaria (2005)



“Gauden bezala egonik, gehigi kezkatu gaitu hizkuntz zuzentasun soilak”

Kike Amonariz, umoregilea (2005)



“Gehiegizko zuzenketak jasangaitezak izan daitezke hiztun askorentzat”

ZORIONAK UK!

HAMAR URTE, HAMAICA ON

Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateak ZORIONIK ETA ESKERRIK BEROENAK eman nahi dizkio UK aldizkariari, haren hamargarren urtebetetzean

euskara zerbitzuak
zerbitzuak euskaraz

Eta herritarrei gogorarazi nahi die Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak honako ekintza hauek antolatzen dituela urtean zehar:

- Kanpainak (aurrematrikulazioa, ondorengoetaratzea, sentiberatzea...)
- Euskara ikastaroak gurasoentzat
- Ume-zaintzaileen zerrenda
- Irakasle partikularren zerrenda
- Irakurzelatasuna bultzatzeko ekintzak
- Euskarazko produktuen katalogoa
- Udaleku irekiak
- Emanaldiak euskaraz
- Ipuin-lehiaketak
- Gurasoentzako tailer-ikastaroak
- Aisialdi ekintzak
- Euskararen egunak
- Hizkuntza-ondarea gordetzeko ekimenak
- ...

URIBE KOSTAKO ZERBITZU MANKOMUNITATEKO
EUSKARA ZERBITZUA
Barrika - Berango - Gorliz - Lemoiz - Plentzia - Sopelana - Urduliz

Gatzarriñe 2-4 • 48600 • SOPELANA • T.: 94 676 26 74



Barrikako Udala



Berango Udala



Gorliz Udala



Lemoizko Udala



Plentziako Udala



Sopelano Udala



Urdulizko Udala



Barrika Foru Aldundia



Berango Foru Aldundia

Gure euskere

Aldizkaritxu hau hasi gendunetik leku emon gure ixen dotsegu gure guresok eta aitite-amamak egiten dauden euskerari, ondo merezi dau eta. Leku askotan kasik galduteko eta ahaztuteko daun berbakera politte hau, aberastasun hau, batu eta gure irakurleri opetzi behar dotsuegule pentsa dogu beti. Horretarako sortu gendun Akabuko Punte atala orain dala hamar urte, eta uzen horitxe imini geuntson euskerak mendebaleko alderantza dekon akabuko muge Galeako punte dalako. Hasikeran Andoni Llosa ibilli zan behar eder hau egiten, gero Urtzi Iglesias, eta azkeneko urtetan Xabi Bilbao. Eurontzako gure esker ona! Hamentxe doatsue laburpentxu bet.

Txomin Udondo, Berango (1995)



“Txomin Udondo, beti oinez eta beti ondo”

Felix Garai, Getxo (1996)



“Esan behar da atxineko usadioak galdu direla Getxon”

Juan Olabarrieta, Leioa (1997)




“Gu baino zaharbxuago zirenak “jolasa” esaten euden “yantza” esan barik”

Amaia Mentxaka, Getxo (1998)



“Ikastolan umetan etzeko euskeraz eyesten ulerten, ikastolan ikisi dot batuan”

Juan Luis Ugarte, Getxo (1999)



“Getxon gaur dana da zemento... jente aberatsa... bizi ondo”

Edurne Bilbao, Erandio. Kantuak (1999)

GOIKO MENDIAN

“Goiko mendian edurra dago erreka aldean izotza neu zugandik aske nago ta pozik dekot bihotza”

GABEN-GABONEAN

“Gabon-gabeen otuten dogu guztiok afari ona: bixigu, lebatz, makailu-saltsa bakoitzak berak ahal deuna gero txurrun plin-plan arda ta patarra katuak hartuta zabu-zabuka”

Bene Markaida, Sopela (2000)



“Andra zaharra naz, baina irekasle gazte... danetarako asti emoten deu bizitzak”

Ramiro Clavet, Getxo (2000)




“Atxine arda be emoten jaken idiri... atxineko zaharrak aspirinak be”

M. Dolores eta M. Luisa Larrazabal, Urduliz (2000)



“Ez pentza, gaurko lez kotxe-tan joaten gintzenik jaietara! beti oinez, Bilbora ixen arren”

Ignacio Zabala, Getxo (2001)



“Gerra akaba zanen ya ez zan ixen len les, inos bes... ya emen asi ziren gorrotoak eta”

Jose Miguel Begoña, Larrabasterra (2002)



“Bilbon bes ez eon dutzarik eta hemen eoteko modun, ondartzara yoten gintzen bañaten”

Franzisko Kaiero, Getxo (aspaldiko grabazioa)



“Batua ni ez noa kontra, se naure akaba da, ondo dau ixen daiten bat, Euskadiko duztik ulertuteko”

Kontxi Unanue, Berango (2002)



“Parisen auki gendun zentro bat, ta lendakaries asko eoten gintzesen, esilion egon zan ta”

Eustakia Bilbao, Berango (2004)



“Len Santa Agedan, etorte ziren etzerik etze, kantate eutzen bertzok, emoten zan txorizo...”

Juan Mari Zelaia, Berango (2004)



“Baserrin ez dao ez zapatu ez domeka; ez da ikusten dirurik. Barririk ez dator atzetik”

UK-ko beteranoak

Testua: **Unai Brea** / Argazkia: **Asier Mentxaka**



Isabel Atxa Getxo

“Euskara-mina neukan, eta berehala eman nuen izena harpide izateko”

Izatez ofñatiarra da Isabel Atxa, baina aspalditik bizi da Getxon. Berarentzat albiste pozgarria izan zen Bizarra Lepoan sortzea. *“Ez dakit zelan eduki nuen aldizkariaren berri, inagarkiren bat ikusita, edo beharbada propaganda sartu zenidaten postontzian... Kontua da nik betidanik sumatzen nuela euskarazko gauzen falta eskualde honetan; euskara-mina neukan, eta berehala eman nuen izena harpide izateko”*. Atxak aldizkaria jaso eta berehala egiten du lehen begiratua, agendari batez ere. Argazkiak ditu atsegin, eta antzinako kontuak; *“Lehen-orain’, eta halakoak”*. Horretaz gainera, Akabuko Punte atala -Bizarra Lepoanek zein UK-k eduki duten arrakastatsuenetakoa, inondik ere- gustoz irakurtzen du. Hamar urtetan aldizkaria asko hobetu dela uste du Atxak: *“Oso aberasgarria izan zen inguruko herrietako infomazioa ematen hastea, azken batean oso inguru hurbila delako. Bestalde, edukiak oso ondo ordenatuta dagoz. Aldizkari modernoa da, asko gaurkotu dena”*. ^m



Loli Hernandez Getxo

“Etxean euskaraz ez dakitenek ere galdetu egiten dute ea aldizkariak zer dioen”

“Hemen ez zegoen euskaraz argitaratzen zenik ezer, eta printzipiozko kontua iruditu zitzaidan harpidetza egitea”, esan digu Loli Hernandez getxoztarrak. *“Euskalduna izatea norberaren euskalduntasuna aldarrikatzea baino zeozter gehiago da; eskaintzen diren euskarazko gauzei erantzun egin behar zaie”*. Pentsamolde horrek gidatuta hasi zen Bizarra Lepoan, lehenengo, eta UK gero, etxean jasotzen, eta harrezkeroztik jaso bakarrik ez, irakurle fina ere izan da Loli. Egunak hartzen ditu zeregin horretan gainera. *“Etxean euskaldunak ez direnek ere galdetu egiten dute ea zer dioen, jakingura edukiten dute”*. Argazkiak ditu gustukoen, *“ematen zaien tratamendua batez ere”*, eta elkarrizketak ere bai, *“ospetsuei eta batez ere bertokoei egiten dizkiezuenak”*. Akabuko Punte ere arretaz jarraitzen du: *“Hemengoa naiz eta gustatu egiten zait nik neuk kalean entzundako esamolde edo berbaren bat aldizkarian irakurtzea. Garrantzitsua iruditzen zait herri-hizkerari leku egitea”*. ^m

Zuoi, aldizkari honen benetako protagonistak zareten irakurloi, leku berezia gorde dizuegu UK honetan. Eta horretarako, modu berezian akordatu gura izan dugu hasiera-hasieratik eta gaur arte harpideak zaretenokaz. Zerrenda ez da luzea, 25-30 lagun ingurukoa baino ez, eta horietatik lau aukeratu ditugu guztien ispilu izan daitezen. Edo behintzat, Bizarra Lepoanegaz eta UKgaz daukaten harremanaz berba egin diezaguten; ez gaitezen lar handigura izan, badezpada. UK-ko harpide gehienak andrazkoak dira. Guk, aldiz, elkarrizketetan andra gibxi ateratzea leporatzen diogu geure buruari sarritan. Oraingoan behintzat, gure harpide-zerrendak agertzen duen errealtateari jaramon egingo diogu.

Nerea Ateka Getxo

“Badaukat Bizarra Lepoanen garaiko artikulu batzuen mina”

Orain dela hamar urte, Bizarra Lepoan jaiotzeko zorian zegoela, Nerea Atekak lankide baten bitartez jakin zuen euskarazko aldizkari barri bat sortu behar zela Getxon. *“Beraren senarrak, hain zuzen, proiektuan parte hartu zuen; hala, laneko askotxo egin ginen harpide”*, diosku garai hartan Geroa ikastolan beharrean zebilen irakasle honek. Hamarkada bat eta gero, Atekak pozik segitzen du aldiro helarazten diogun produktuagaz, Bizarra Lepoanen garaiak gogoan baditu ere. *“Badaukat orduko artikuluen mina”*. Izan ere, aldaketa handia egin du aldizkari honek Atekaren ustez, Uribe Kosta osora zabalduz geroztik batez ere. Oraingo ataletatik, elkarrizketak ditu gustukoen, eta batik bat herriko jende xeheari egindakoak. *“Lehenengo dena begiratzten dut: argazkiak, izenburuak... Gero, apurka-apurka eta denboraz, artikulua irakurtzen ditut, ez den-denak baina bai gehienak. Hamabost egun ditut horretarako, eta denbora nahikoa da”*, esan digu. ^m



Eugenio Campo Leioa

“Bitxia iruditzen zait hemengo azpi-euskalkia, eta beti ahalegintzen naiz Akabuko Punte irakurtzen”

Eugenio Campo Leioari dagokion Erromoko aldean bizi zen orain dela hamar urte. Erromo Udal Euskaltegian zebilen, eta handik ailegatu zitzaion Bizarra Lepoanen harpide izateko proposamena. *“Arrebaren izenean egin genuen, baina neu izan naiz hamar urteotan aldizkaria irakurri dudana”*. Esan barik doa Bizarra Lepoan eta UK euskara ikasteko tresna eduki dituela denbora horretan; gaur egun, eta maila nahikoa lortuta, problema barik ulertzen du dena. Jakin badakigu erdaldun asko UK zale dela, erretratuak begiratzeko besterik ez bada ere, eta horren adibide ederra dago Camporen etxean: *“Ama Zamorakoa da, ez daki tutik euskaraz, baina beti begiratzten du, gustatu egiten zaio inguruko leku eta pertsonen argazkiak ikustea”*. Eugeniok berak, berriz, ez dauka atal kutunik, dena -edo ia dena behintzat- gustatzen zaio eta. Zeozer aipatzearren, Akabuko Punte aipatzen du: *“Bitxia iruditzen zait hemengo azpi-euskalkia, eta beti ahalegintzen naiz irakurtzen”*. ^m



Satistegi kafea (Algorta)



[iragarleak]

Bezzeroak

[gure iragarleak]

UK egitea, inprimatzea eta zuoi, irakurleoi, helaraztea oso gauza garestia da eta horregatik diru bila ibiltzen gara egunero. Hiru dira UK aldizkariaren diru-iturri nagusiak: erakunde publikoen diru-laguntzak, irakurleen borondatezko ekarpenak eta publizitatearen salmenta. Tamalez, gaur egun ere, gaxa da euskara hutseko agerkari batentzako publizitatea saltzea. Gainera, erdarazko komunikabideen kompetentzia ikaragarria daukagu. Hala ere eta zorionez, iragarle oso fidelak dauzka UK-k, aldizkari honen oihartzunean sinisten duten merkatariak. Euretako asko hamar urte hauetan argitaratu ditugun aldizkari guzti-guztietan ipini dute euren denden publizitatea. Zoritxarrez, UK posible egiten duten merkatari horietako batzuk baino ez dira orrialde bi hauetan kabitu.

Aldai tapiztegia (Algorta)



Cianoplan erreprografia (Areeta)



Egunkariak prentsa (Algorta)



Errotalde ileapaindegia (Getxo)



Mungia okindegia (Algorta)



Udondo taberna (Leioa)



Gaurko arropa denda (Algorta)



Goizean prentsa (Getxo)



Itxas-gane prentsa (Algorta)



Batiz kristaldegia (Algorta)



Laiak taberna (Sopela)



Txiberri taberna (Urduliz)



Inaki bitxitegia (Algorta)



Laubide pinturak (Sopela)



Maria Jesus ileapaindegia (Algorta)



Vasa (Berango)



Kantxa kirol moda (Algorta)



Basurto altzariak (Algorta)



Horrela gakUsKate

Zuon aurrean aldizkaria aurkeztu genuenetik 10 dira joan diren urteak. Bizarra Lepoan eta UKren zenbat orrialde argitaratu da? Zenbat herritar ekarri ditugu orrialdeotara? Zenbat itzal handiko ipini ditugu argitara? Zenbat ezezagunen aurpegiak aurkeztu? Eta oroitzapenari ostutako zenbat argazki bistaratu? Asko eta asko dira UKren plaza honetara gonbidatutakoak, ostera, beste hainbeste geratzen dira ezagutzeko, kontatzeko, azaltzeko eta agertzeko. Hala ere, lantzean behin bakarrik heltzen zaizkigu belarrietara plazako berbak eta iritziak: zaharberritzeko gomendioak, txarto egindako lanen gaineko kexak, plaza erdiko ohiko iturria urbegi berriz osatu beharko litzatekeela dioten aholkuak... Horregatik guztiagatik, 10 urteko gure ibilbideari zer deritzozue?

Joxi Arakama **Getxoko Euskara Zerbitzua**



Lehen hilabetero eta orain hamabostero, postontzian begiratu eta taka, hortxe dago aldizkaria. Eta, aizu, ilusioa egiten du aldizkaria jasotzeak; ilusioa egiten du herriko eta inguruetako albisteak irakurtzeak. Aiba! urlia agertzen da ale honetan, begira-begira sandiak zer egin duen eta berandia zertan dabil esaten dituenak esaten... Ezinbestekoa bihurtu zaigu aldizkaria eta euskara hutsez. Ez nuke amaitu nahi aldizkaria egiten dutenen lana eta proiektuan hasiera-hasieratik lan egin dutenen ahalegina eskertu barik. Eskerrik asko eta zorionak UK. ^m

Ricardo Badiola Uriarte **Euskaltzaindia**



10 urtez UK aldizkariagaz! benetan pozgarria jat Zuoi zorionak eskaintzea eta beste 10 urtez, gitxinez, gugaz izan eta gure herrialdeko barriak herritarroï eskaintzea. Bene-benetan zorionak eta aurrera... gitxi gara baina legaminaren antzera oreari bizitasuna, zuon aldizkariaren antzera....!!! Zorionak eta aurrera. ^m

Unai Elorriaga **idazlea**



Zer gozatu dut nik aldizkari honetan? Gozatu dut txukuntasuna, gozatu ditut irudiak, Asier Mentxakarenak asko, Mikel Martinezenak ere bai, gozatu dut diseinua, gozatu ditut antzinako erretratuak, gure familiarrak agertzen zituztenak eta agertzen ez zituztenak... baina batez ere “Akabuko punte” gozatu dut, pertsonen berbeta ikusten zelako han. Eta oso zaila da gaur egun soinuak ikustea. ^m

Jon Urraza **aktorea**



Ilusioz jasotzen dut UK, onena niretzat argazkiak; elkarrizketa interesgarriak ditu, eta azken orrialdeko “aitormenak” eta zine gomendioak ere gogoko ditut. Baina nire ustetan horren atalkatuta egoteak errepikakorra bihurtzen du aldizkaria; eta gurago nuke urtean zehar antolatzen diren jardunaldiei tratamendu sakonagoa emotea, bai aurretik eta bai ondoren kritika eginez... bukatu berri diren Umore Jardunaldiak adibidez. Baina hau nire iritzia baino ez da. ^m

Kike Anomarriz **Argia**



Getxon hitzaldia eskaini eta UK. Liburu bat argitaratu eta UK. ARGIAko kanpainak antolatu eta UK. UK beti gertu eta beti laguntzeko prest sentitu dut. Lankide eta adiskide. Eta urruti bizi arren, UK-k lortu du, Uribe Kosta eta Getxo erakargarriago eta interesgarriago bihurtzea, eskaintzen duen informazioaren kalitatearengatik eta bere diseinu berritzailearengatik. 10 urte hasiera besterik ez dira. Zorionak UK, OK UK! ^m

Mikel Arieta-araubeña **Erandioko Alkatea**



Ederra, benetan, komunikabide batek hamar urte betetzea eta, gainera, ospatzea. Erandioztar guztien izenean, nire zorionik beroenak UK aldizkariari, profesionaltasunez, independentziaz eta objektibotasunez hur-hurreko informazioaren eta euskara sustatzearen alde egindako lanagatik. Zorionak eta urte askotarako! ^m

Pedro Garcia Larragan **kazetaria**



Sinestu: UK aldizkariak egiten duen lana ez balego, batek asmatu beharko luke. Ez da bakarrik euskararen normalizazioaren alde egotearen kontua, ez. Jendeari interesatzen jakozan arazoetatik bere hurbil zauzie. UK aldizkaria barri ona da danontzako, euskeraren alde lan egiten dutenentzako, eta baita kazetaritzaren alde behar egiten dogunentzako. Zorionak ba!...eta ekin lanari,... mesedez. Besarkada haundi bat. Zuen lagun eta irakurle baten partez. ^m

Ana Lopez Asensio **Leioako Kultur Saila**



Uribe Kosta Aldizkariak 10 urte bete ditu. Euskera bultzatuz gure herrietan dagoen mugimenduaren berri eta ekintzen informazioa hurbildu digute irakurle guztioi. Urte hauetan gauzak aldatu diren bezala gu ere aldatzen joan gara, baina elkarrekin beste 10 urte gehiago ospatuko ditugula espero dugu. Aurpegi onarekin gainera! ZORIONAK UK! ^m

Jon Fano **Berbalamiñe Euskara Elkartea**



Urte bi bere ez dira Berbalamine euskara elkartea sortu genduala. ibilbide laburra izan dan arren, mamitsua, egitasmo batzuk burutu eta beste asko martxan doguz eta. Geuri jagokunean, behintzat, hasieratik bertatik UK aldizkariak erakutsi euskun edozein laguntzatarako gertutasuna eskertzekoa dala aitortu behar dogu. Aurrerantzean bere eta helburu bera dogula, hau da, euskerea sustatzea, harremanetan eta alkarregaz beharrean jarraituko dogula ziur gagoz. Bejondeizuela eta aurrera lagunok. ^m

Joxe Legarreta **Erandioko udal euskaltegia**



Oso pozgarria da niretzat hamar urte pasa eta gero oraindik “bizirik irautea”. Baina, poztasuna alde guztietatikoa da; alde baterik, aldizkari eder hau zuzentzen duten langileek agertu duten lanerako prestasuna eta grinagatik; eta bestetik, hainbat jendek, irakurle moduan, harrera ona eman diolako aldizkariari. Eta, hirugarrenez, eta ez garrantzi gutxiago duela-ko, hainbat erakundek diruz lagundu dutela-ko UKren proiektu hau. Hala segi beza! ^m

A. Regalado **Algortako liburutegiko zuzendaria**



UK aldizkariari esker, Getxoko liburutegien erabiltzaileek, bertoko informazio pila ezagutzeaz gain, gure Argazki-Artxiboa ere ezagutzeko aukera izan dute. Azken finean, gure herrialdea, gure lurra, gure jendea, gure etxe eta kaleak, gure paisaiak, gure gaiak... eta den-dena gure hizkuntzan. Urte askotarako! ^m

Aitor Fdez. de Martikorena **AEK-ko irakaslea**



Ez dirudi 10 urte pasatu direnik, hain eguneroko bihurtu baitzaigu UK! Urteotan bertako orrialdeetan hainbat eta hainbat material topatu izan dugu klaseratzeko, eta euskaltegitik zer edo zer antolatuz gero, handik egun batzuetara ilusioz gainezka zabaltzen genuen hurrengo alea gu aipatuko gintuen artikuluaren bila. Horrela 10 urtean. Ez dirudi, ez. Zorionak eta aurrera! ^m

Joseba Butron **irakaslea**



Bideak urratzeko kemena, ehunka aletan mamitu den ahalegina, argazkiak eta aurkezpen bikaina, Uribe Kostako taupaden adierazpena, iragana eta oraina batu eta geroari atea irekitzeko grina, ezina zirudiena ekinez egina, eremu latz honetan euskara ona eta bertokoen hizkera jatorra ere jasotzeko lana, segi etsi barik, nekez hartu arren esker ona, eginikoa txukuna, hobea bedi etorkizuna. ^m

Iñaki Zarraoa **Getxoko Alkatea**



Euskaldunok euskaraz bizi ahal izateko asko falta da, baita Getxon ere, jakina. UK-k Getxo eta Uribe Kostako zulo bat bete du, berri ugari eman digu euskaraz, euskaldunago izaten lagundu digu, gure euskara hobetzen, gure egarria asetzen, gure kontzientzia suspertzen, euskaldunok elkar ezagutarazten. Eta hori dena duin, txukun, dotore, harro, interesgarri, atsegin. ^m

E. España **Mankomunitateko Euskara Zerbitzua**



Zu sortu zinenetik hamar urte joan dira, hamar urte oparo eta emankor. Zure bitartez aukera paregabea dugu gure eskualdeko informazioa euskara hutsez irakurtzeko, eta hori izugarrizko aurrerapausua da euskararen normalizaziorako. Baina zu ez ezik, zu aurrera ateratzen zaituzten langile eta laguntzaileak ere ezin ditugu ahaztu, horiek gabe ez baitzinateke ezer ere izango. Zorionak UK eta UKkideok. ^m

Jon Azkargorta **rugbyzalea**



Zorionak irauteagatik eta iraute hori ugaria eta aberatsa izan delako. Eskerrik asko herriko jendea erakusteagatik; argazkiak identifikatzen ematen dugun denboragatik, tokiak, gertakizunak, iritziak, elkarteak eta herritarrak ordezkatzegatik. Herri osoari mesede handia egiten diguzue eta are gehiago euskaltzaleoi. Jarrai ezazue gure bizitzetan egoten. ^m

Afrika Bibang **kantaria**



UK aldizkariak Uribe Kostako istoria islatzen digu, erreportaje bitxiak, herriko jentea protagonista. Atzoko eta gaurko argazkiak errealitatearen lekuko, gure herriko tokiak nolakoak ziren eta zertan bihurtu diren gogoratuz. Eta hau dena publiko euskaldun bati zuzendua. Eskerrik asko UK zuen lan inkondizionalagatik, zorionak eta urte askotarako! ^m

Igor Elordui **AEKren prentsa arduraduna**



22 urte nituen eta kazetaritza ikasten eta euskara irakasten ari nintzen. Baina ezin nuen nire herriko berririk euskaraz jaso; ezin nire herriko kontuez idatzi; ezin Erromoko AEK-kook antolatzen genituen ekitaldi sorta argitaratuko ziren ziurtasunaz inora bidali, ezin inongo hedabidetan nire herriko euskararen gainekorik topatu. Ez nituen hainbat lagun eta euskaltzale fin ezagutzen. Baina 1995etik aurrera dena aldatzen hasi zen... ^m



- Zabalik egunero
- Eguneroko menuak
- Enpresa menuak
- Menuak nornberaren gustura
 - Egunero karta berezia
 - Gazez dastatzeko menua
- astelehenetik- ostegunera
 - Jaun hartze bazkariak

zure gustura prestatzen ditugu.



Asador Goieztia

Aretxondo 14
Algortako Portu Zaharra / Getxo
Erreserbak: 94 491 25 93

Nekane Gallastegi J. A. Agirre euskaltegia



UK aldizkariaren hastapenetan ikasleei honen berri eman behar izaten genien; urte batzuetatik hona, ordea, gutxi dira UK zer den ez dakitenak. Nagusi, gazte, langile, etxekoandre, ikasle... guztiontzako aldizkaria da eta euskaltegian badu bere lekua erabilitako baliabide didaktikoetan. Horrez gain, onena da bertan agertzen den guztia oso hurbila dela: argazkiak, lekuak, jendea, gaiak... m

Eugenio Gandiaga Getxoko Kultur Etxea



UK edozein adinetako herritarrentzako zita bihurtu da, 10 urte hauetan hurbilekoena, gure herriko gauzarik onenak, pertsonaiak, bazterrak... aurkezteko birtutea eduki du UK-k, beste hedabideetan kabitzen ez direnak.

Eskerrik asko hamarkada honetan gure ibilbidearen lekuko izateagatik, eta espero dugu 20. urteurrena ere zuokin ospatzea. m

Endika Korkostegi Itxas-Argia



Ez da erraza hain hitz gutxitan UK-k azkenengo hamar urteotan egin duen lana laburtzea. Hamarkada honetan gure herrietako hainbat gertaera, istorio eta pertsonaia desberdin ezagutu ditugu UK-ri esker. Baina zerbait aipatu behar bada, UK-ko lantaldeak euskara eta euskal kulturaren alde egin duen lana da.

Zorionik beroena Itxas-Argiaren partez. m

Jon Aurtenetxe Aixerrota institutua



Betidanik, hastapenetik, egon da Aixerrota eta bertoko aldizkariaren arteko harreman estua. Asko dira Aixerrotako irakasleak eta aldizkariaren kolaboratzaileak izan eta direnak. Bestalde, Aixerrotako ikasle batzuek ere aldizkariarentzat lan egin eta egiten dute. Entitate biak euskaraz bizi izateko bi esparru natural dira; osagarriak berez. Aldizkaria insitutuaren (eta besteen) isla izaten sailatzea merezi duen moduan, zentruan aldizkaria erabiltzea ere lagungarria gertatuko da seguru. Hala bedi. m

Roberto Moso musikaria



UK aldizkaria usaintzen dudanean, honelako urrinak ailegatzen zaizkit: gaztetasun mentala (ziur aski fisikoa ere bai), musikazaletasuna, euskaltzaletasuna , kazetari sena, kutxu ekologikoa eta lurrarekiko maitasuna. UKari ezker ezagutu ditut antzinako paisaiak, bertako heroiak, toki bisitagarriak , zonaldeko euskalkiak...Zorionak! Lan ederra, benetan. m

Jone Gurrutxaga Gorlizko Kultur Etxea



Azken 10 urteotan, idatzizko komunikabide bikaina izatera heldu da UK aldizkaria. Denok zahartzen goaz, baina UK indarberrituz doala esango nuke, lan onaren eredu direlako benetan UK-ko langileak. Uribe Kosta badugu harro egoteko aldizkaria, geure bazterrak, pertsonak, ekimenak... modu bikainean jorratu eta ezagutarazten dituelako, hamabostaldi gainera! Meritu itzela da hori! Zorionak eta holantxe jarraitu! m

Laura Mintegi idazlea



UK irakurtzea, izeko Mertxeren gutuna etxean jasotzea bezalakoa da, gauza familiarra, besterik gabe espero dena, paisaia domestikoaren elementu ezinbestekoa. Ezagunen berri ematen digu, herria nola eraldatzen ari den ohartarazten, bizitasun kulturala zenbatekoa den azaltzen digu. UK irakurtzea da bainugelako ispiluari begiratzea bezalakoa, goizero-goizero ikusi arren ez diogu gure begitarteari ongi begiratzen ispiluan islatuta ikusi arte. m

Josu Landeta ALBE



Orain dala 15 urte inguruan ikusten genduazan herri mailako aldizkariak erdaldunak ziren danak, eta hareek euskeraz publikatzeko bapere asmo barik ibiltzen ziren. Ordurako baegoan Arrasate Euskaldun Dezagun taldearen publikazinoa, baina hemetik lar urrun ikusten genduan. Handik 5 urtera BIZARRA LEPOAN eta gero UK sorturik, sasoi haretan pentsa ezina zana bete zan: Herri mailako euskera hutsezko aldizkari bat, aurreko guztiak baino hobea ganera, eta kalitateko materiala guztion eskura. m

Jabi Baraiazarra mendigoizalea



Uribe Kostako begi euskalduna izan da UK azken hamar urte hauetan. Leioha eta, halaber, ispilua. Auzoko ospetsuen nondik norakoak jakinarazteaz gain, ezezagun horri aurpegia eta izen-abizenak jarri dizkio UK-k. Gaurko zein antzinako irudiak euskara dela medio eraman ditu UK-k etxe erdaldun askotara. Zorionak eta gutxienez beste horrenbeste bete dezazuen! m

"kultura,aisia,euskera,eta jendea gure iparra"

Tiempos turbulentos

En el reinado de Ricardo I Corazón de León

Gonzalo Iribarnegaray
idazlearen nobela berria



prentsa • aldizkariak
GETXOKO KIROL PORTUA
Arriluze z/g • Tel.& Fax: 94 491 53 21
ALGORTA • GETXO

BATIZ KRISTALDEGIA



- BIDRIERAK
- GRABATUAK AREA TEKNIKAREKIN
- IZPILU ERRALDOIAK
- INSTALAZIO OROKORRAK
- FUSIN

Illeta z/g (Sarrikobasoerikin bat)
T:94 430 69 42 /ALGORTA

GOIZEAN



“Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez
Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Litxarriak

Orduña Mendatea 1
T: 430 22 13
GETXO

Telletxe 13
T: 460 02 88
ALGORTA

**aldizkaria
etxean jaso
nahi baduzu**



uk@aldizkaria.biz
94 491 13 37

[horoskopoa]

URA
t



(Abenduak 21 urtarrilak 19)
Hobe duzu aurreztutakoak ondo jagon, honezkero denak xahutu ez badituzu behintzat. Gogoratzen al duzu ez zarela aberats jaio? Ez, ez zara aberatsa eta ezin zara Bill Gates legez bizi! Onar ezazu behingoz!

OTSOA
t



(Urtarrilak 20 otsailak 18)
Sorgindu gura zaitu. Izan dezakezuna daukazuna baino hobea dela sinetsarazi gura dizu. *Eizazu* bere edabe magikotik edan. Ez al zara konturatu bere onerako bakarrik diharduela? Bere alboan ez zara zoriontsuago izango.

ADARRA
t



(Otsailak 19 martxoak 20)
Heldu da ordua. Laster ezagutuko duzu zure barruko sua piztuko duen sorgina edo basajauna. Begi zeharka begiratuko dizu, eta begirada hori momentu horretan harrapatzen ez baduzu, zureak egin du. Adi egon!

AITZURRA
t



(Martxoak 21 apirilak 19)
Bihotzak diotsu maite duzula, buruak, oster, ezinezkoa dela. Bien erdi bidean dago ahoa, bertatik aterako da egia. Esaiozu bihotzak dakiena, esaiozu buruak sentitzen duena. Eta horrela ez duzu sekula galduko.

HOSTOA
t



(Apirilak 20 maiatzak 19)
“Inorena ikusteko argitsu, berea ikusteko isu”. Zein erraza den besteen akatsak antzema-tea, zein erraza den besteentzako gomendio edota aholkuak ematea. Lehenengo zure akatsak ikusi beharko zenituzke, hori egiteko premia handia daukazu-eta.

EGUZKIA
t



(Maiatzak 20 ekainak 18)
Zure inguruan harresi bat eraiki duzu. Erasorik ez jasateko gotorleku horren babesean pozik zaude, baina hesiak ez du bizipen eta lagun berriak ezagutzeko aukerarik ematen. Hainbestelako babes hori ez al da aspergarria?

GARIA
t



(Ekainak 19 uztailak 18)
Musika topera daroazu beti. Besteek diotena ez entzuteko? Erdi gor lotuko zara azkenean. Egia esan, zure ahotsaren tonua ere besteena baino askoz ozenagoa da. Besteek esateko daukatena entzun beharko zenuke.

LASTOA
t



(Uztailak 19 abuztuak 17)
Sentitzen duzun hori maitasuna den? Bere alboan eman gura zenituzke 1001 gau? Beragaz batera igarri gura zenituzke bizitza eta munduaren sekretuak? Bera-gaz banatu gura zenituzke plazeraren gozokiak? Orduan, badakizu erantzuna.

IRATZEA
t



(Abuztuak 18 irailak 16)
Ez dakit zelan, baina edonondik indarra lortu beharko duzu. Datozen egunetan batera eta bestera, gelditu barik ibiliko zara-eta. Aste-akabu lasaia presta ezazu, mendira ibilalditxoa egitea ez litzateke ideia txarra izango.

META
t



(Irailak 17 urriak 16)
Zoriona ate joka izango bazenu ere, ez zenuke txirrinarren soinua entzungo. *“Zein zorizarrakoa naizen, zergatik ezin dut nik balako hura eduki...”*, hala zabilzta beti. Zoritzarrean bizitzea gogoko duzula pentsatuko dugu, benetan.

HAZIA
t



(Urriak 17 azaroak 15)
Munduagaz haserratzak ez du ezertarako balio. Besteek ez dutela ezer egiten diozu beti: *“gertatzen dabilatzanak ikusita zelan egon litezke besoak gurutzatuta ezer ere egin barik?”* Alabaina, eta zuk zer egiten duzu?

NEGUA
t



(Azaroak 16 abenduak 20)
Gogoko lekuan aldaparik ez. Ezta? Sasoi onak dira hauek zuretzako; hala ere, txarrak helduko direnerako kontuan hartu hurrengo: mendiaren edertasuna tontor gainetik bakarrik antzeman daitekeela eta horretarako aldapa igo behar dela.



mungia
oKINdegia

*Algortan badaukagu
artisaunen ogia
izen eta jatorriz,
da “ogi mungia”.*

*Goizero lortzen dogu
obispoen guleria
probatu bada edo ez
dan benetako egia.*

KASUNE 28 - T: 94 430 10 76
ALGORTA

[komikia]





Gaizka Escudero eta Itsaso Arana

Pipi & Itsaso

Urte hauetan guztietan huts egin barik hobeto jaten eta edaten irakatsi digute Pipik eta Itsasok

Testua: **Jokin Aspuru** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

Bai zorte handia gurea! Ondo jan eta edatea izugarri gustatzen zaigu eta kontu hauetan gure jakinmina hasetzeko puntako aditu biren laguntza desinteresatua jasotzeko aukera eduki dugu urte hauetan guztietan. Euren lan esparruetan profesional apartak dira biak.

Gaizka Escudero Pipi. Zer esan Pipiri buruz? Sukaldari ikaragarria da, fina eta langilea. Mirariak egiten ditu egunero Basalbo bere jatetxeko sukaldean. Arraina inork ez bezala kozinatzen du, izan ere, maisua da zeregin horretan. Okelak berdintsu prestatzen ditu, gogoangarriak dira bere txirlak marinel erara, edota berak sarritan basoetan batzen dituen perretxi-koak.... Esan bezala sukaldari zoragarria da Pipi. Baina bere maisutasun hori baino askoz handiagoa da bere eskuza-baltasuna. Hamabostean behin txapa ematen diogu eta berak errezetak eman ez eze bere plater guztiak dastazera ere gonbidatzen gaitu beti.

Itsaso Arana. Zer esan Itsasoren gainean? Estatuko Urrezko Sudur izendatu zuten orain dela urte bi, hau da, ardao kontuetan, estatuan pertsonarik adituena aukeratu zuten. Imajinatzea erraza da; bere agenda gainezka egoten da beti. Jolastokin ez dagoenean munduko edozein bazterretan egon daiteke. Hala ere, urte hauetan guztietan Itsasok beti topatu du aldizkari xume honentzat bere ardaoaren gaineko

«Euren lan alorretan profesional apartak dira biak»

kolaborazioa egiteko tartetxo bat. Esker ezina da hori guretzat, eta zuretzat irakurle, luxu itzela. Baina guk Itsasoren beraren jakituria baino, askoz ere handiagoa duen apaltasuna nabarmendu nahi dugu.

Ale berezi hau egiteko orduan ez diegu Itsasori eta Pipiri beharrik eman gura izan, gure esker ona baino ez genien erakutsi nahi. Esandakoa, mila esker bio! m

KONTXI
ZUAZUBISKAR

URDAITEGIXA

*Adituak gara,
Urdaiazpiko Iberiko, Pate
eta Gaztaietan!!*

GABONETAN

- Tolosako *Eceiza* turroia
- Bilboko Correos kaleko turroia (Eladio Ibañez Coloma)
- Ardoak eta txanpanak

zorionak eta urteberri on!

Alangobarri, 10 ALGORTA
T.: 94 491 02 93

san inazio
autoeskola
1951n sortua

LCC - A1 - A - B - BTP
baimenak

Telletxe, 13 / Tel. 94 460 00 45
ALGORTA

JUAN-MARI



Harategia eta txarkuteria



LAS MERCEDES 31 • TEL.: 94 464 41 25
AREETA

TXIKI-AUNDI KAFETEGIA
ezagutzen al duzu?

*herriko pintxorik
onenak ditugu
etorri eta probatu!!*

Amezti, 10 / T: 94 460 57 57 - ALGORTA



VIEJO

*kopak eta
giro jatorra*

Alangobarri, 4 Tel. 94 460 30 03
ALGORTA

Zurikaldai

JOKIN GARATE BAYO
Neguriko Etorbidea 9
T: 491 14 87
48990 NEGURI

KIMETZ GARATE AZURMENDI
Aingeruaren etorb. 4B
(sarrera, Jata Mendia) T: 460 01 87
48990 GETXO



Taberna Berri
Sarrikobaso 4 -ALGORTA
Tf.: 944 306 493

Arasa

Sukalde eta Komunetarako
Ekipamendu Osoa
Barnekaldeen
zaharberritzeak eta
dekorazioa



Sarrikobaso, 44 • 48990 Algorta
Tel/Fax: 94 430 11 91



Zabalako eskolak, 1934

Algortako Juan Bautista Zabala kalean aspaldixotik dago eskola. Begira, bestela, 1934 inguruan egindako irudi honi. Bertan ageri diren ikasle guztiak mutikoak dira, garai hartan, geroago Francoren diktadurapean bezala, neskak eta mutilak ezin zirelako elkarregaz joan eskolara. Kasu honetan, harresia zegoen, eta hark banatzen zituen batzuk eta besteak. Dena dela, hurrengo batean nesken erretratuak ekarriko dizuegu. Bestalde, eta igarri daitekeenez, Juan Bautista Zabalako eskolak ez dira mugitu, baina euren itxura askotxo aldatu da, beste gauza asko aldatu diren bezala. Begira, esaterako, lehen lerroko ume batzuen oinetakoei. Denbora ez da alperrik igarotzen! ^m

Lehenengo lerroa (jesarrita): A. Bueno, T. Aguado, E. Mazo. S. Isusi, J. Valdemoro, F. Martínez Learra, E. Domínguez, "Pepin", ?.

Bigarren lerroa: I. Sanz, Aguado, L. Gómez, ?, ?, A. Pinto, E. Gutiérrez, E. Bretos, T. Aguiriano, E. Agirre.

Hirugarren lerroa: Cajigas, S. Galín, ?, J.M. Aguiriano, M. Saitua, J. Atxurra, "Juanero", B. Aguiriano, I. Olabarria, ?, A. Uriarte.

Laugarren lerroa: L. Saitua, R. Tapia, C. Cuatango, N. Méndez, J.M. Arana, A. Landa, D. Pablo, G. Elorriaga, I. Tellitu, J.M. Domínguez, J. Gómez.

Bosgarren lerroa: ?, ?, Santamaría, J.I. Otazua, Ibáñez, J. Bretos, E. Esumaga, J.M. Etxeandia, S. Uranga.

* **Oharra:** aldizkarian argitaratzeko argazki zaharrik badaukazu, jarri zaitez mesedez UKrekin harremanean: 94 491 13 37



Zuen esku jartzen dugu:

HIRI BARRUKO KORRESPONDENTZIA BANAKETA

PROPAGANDA BANAKETA

HIRI BARRUKO ETA KANPOKO INPRIMAKI, MAILING, PUBLIZITATE ZUZENA
ETAB.EN BANAKETA

Paketeria, Garraio lokala, nazionala eta nazioartekoa

Sobreratzeak, Manipulatuak...

Inprenta eta Arte Grafikoak

Agiri eta gutunazalan personalizatzea

Konpetentziarik gabeko prezio-kalitate erlazioa. Informazio gehiago behar izanez gero, ez zalantzarik izan. Deitu!

GETXO • LEIOA • BERANGO • ERANDIO • BASAURI

Tel. / Fax: 94 480 31 12
www.euskorreo.com email: manusola@euskorreo.com



ANTOLAKETA ETA ZERBIT-
ZUAK S.L.


15 urte zuekin

*Zorionak eta urte berri on
bezero eta lagun guztiei!*

Errotatxu poligonoa, B blokea, nabe 11 - 48993 GETXO

Tel.: 94 491 17 44 - Faxe: 94 491 0851

E-mail: az@antolaketa.com - www. antolaketa.com



UK-ko artaldea, 2005

Goiko argazki-mosaiko horretan azaltzen direnak gaur egun aldizkari hau egiten gabiltzan lagunok gaituzue; kazetariak, marrazkigileak, kolaboratzaileak, banatzaileak.... azken batean UK gauzatzen dugun pertsonak. Eta goiko argazkiak bezalaxe oso desberdinak gara guztiak. Zoriak aginduta hamahiru agertzen gara, eta gabon data hauetan konparazio erlijioitsu erraza atera zaigu: Jesukristo, gure zuzendaria, eta hamabi apostuluak, gainerakoak. Kontua da inork ez zuela argazkietan atera gura, baina zuzendaria behartu gaitu lantaldea ezagutzera eman behar zen aitzakiarekin. Lantaldea baino ea artaldea ote ginen aurpegiatu diogu guk, baina ez digu jaramonik egin. Esan dezagun, azkenean -hain da-eta burugogorra bera- konbentzitu gaituela. Zorionak eta urtebarri on guztioi! Bakea zuekin! ^m

01 Jokin Aspuru (zuzendaria), 02 Unai Brea (kazetaria), 03 Jon Etxebarria Txontxe (zuzentzailea), 04 Irantzu Sagarminaga (kazetaria), 05 Asier Mentxaka (argazkilaria), 06 Xabi Bilbao (Akabuko punte), 07 Oskar Fernandez (zinema), 08 Gorka Vazquez (marrazkilaria), 09 Zuriñe Martinez (publizitate arduraduna), 10 Bittor Egurrola (kolaboratzailea), 11 Aritz Bregel (kazetaria), 12 Aida Ulibarri (banaketa), 13 Dogan Gozel Keko (marrazkilaria)


Zerbitzuak Euskaraz Euskara Zerbitzua



Getxoko toponimoak bildu eta normalizatzen.
Getxoko toponimia CDa



Euskara ikasteko diru-
laguntzak: baliabide
ekonomikorik ez dutenei,
gurasoei, begiraleei,



Udaletxean euskararen erabilera sustatzen.
Euskara zerbitzu eta lan-hizkuntza



Merkataritzan euskara sustatzeko egitasmoa:
itzulpen zerbitzua, euskara ikasteko laguntzak...



Euskararen belaunaldiz-
belaunaldiko transmisioa
sustatzen



Zerbitzuak euskaraz
Euskara Zerbitzuak:
Getxon euskaraz
eskaintzen diren
zerbitzuen bilduma

eta gainera, diru-laguntzak euskalgintzako taldeei:
UK, Egizu, Bizarra Lepoan, UKBERRI, ALBE, UKTEST...

eskerrik asko eta zorionak
UK aldizkaria!

EUSKARA ZERBITZUA
Etxe Sorgindua. Basagoiti etorbidea 20 GETXO
tel.: 94 466 00 10-11 / Faxa: 94 466 00 14
euskara.zerbitzua@getxo.net
www.getxo.net